6€

148
ZENBAKIA

2024ko MAIATZA

EUSKAL HERRIKO Natura

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

ALABAMAKO PSEUDEMIDOA

APOARMATU ERRETIKULATA

APOARMATU ARRUNTA

FLORIDAKO DORTOKA

BASOKO APOARMATUA

DORTOKA KAIMANA

KUBAKO TRATXEMIDOA

NILOKO TRIONIXA

MUNDUKO APOARMATUAK




NELSONEN PSEUDEMIDOA

ESPECIES EXÓTICAS INVASORAS-ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK

HORIEN SARTZEA EKIDIN!











araba álava
foru aldundia diputación foral

ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN HEDAPENA ARRISKUTSUA DA BIODIBERTSITATEARENTZAT. EZ SARTU

EUSKAL HERRIKO NATURA

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

AURKIBIDEA

EUSKAL HERRIKO NATURA - 148.zk - 2024ko MAIATZA- 6€



MUNDUKO APOARMATUAK

***Emydidae* Familia** 4
Apoarmatu arrunta.....4
Puntu horiak dituen klemidoa.....6
Basoko apoarmatua 8
Marmol-apoarmatua 9
Muhlengerg-en apoarmatua 10
Blanding-en apoarmatua.....11
Dortoka-kaxa arrunta.....12
Nelsonen dortoka kaxa.....13
Coahuila-ko dortoka kaxa.....14
Dortoka kaxa apaindua 14
Apoarmatu erretikulatua 16
Graptemido geografikoa 17
Calgeko geograficoa.....17
Floridako dortoka.....18
Barburreko graptemidoa.....19
Orban horiak dauzkan graptemidoa..20
Puntu beltzak dauzan graptemidoa..21
Graptemido ozeloduna 22
Alabamako graptemidoa.....23
Graptemido pseudogeografikoa....24
Texasko graptemidoa.....25





Diamante dortoka 26
Alabamako pseudemidoa 27
Konzina pseudemidoa.....28
Espainiarraren tratxemidoa 29
Floridako pseudemidoa.....30
Nelsonen pseudemidoa.....31
Sabel gorria daukan pseudemidoa.....32
Kubako tratxemidoa.....33
Dorbingiren tratxemidoa.....33
Gigotea dotorea.....34
Stejnegerren tratxemidoa.....36
Oskol bigunaren dortokak
***Trionichydae Familia*.....36**
Niloko trionixa 37





Trionix kartilaginosoa.....38
Trionix arantzatsua 39
Trionix arantzatsu beltza 40
Trionix mutika.....41
Gangesko trionixa.....42
Lehiteko dortoka 43
Trionix indiarra.....44
Malaysiako trionixa 45
Trionix erraldoia..... 46
Txinako trionixa 47
Indiako trionixa 48
Aubryren trionixa 48
Dortoka kaimana 49
Dortoka aligatorea 50



EUSKAL HERRIKO NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez
Erredakzioburua: Ruben B. Caballero
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta Inés Zubia, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza
Argazkilari-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi
Maketatzailea: Cristina Urionabarrenetxea
Legezko gordailua: BI-2452-02
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 2.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. **e-maila**: adeve.1991@gmail.com

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkartea.

EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena. 3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkartea herri-onurakoa dela aintzatesten duena.

HARPIDETZA-ORRIA Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF.: **94 475 28 83**

EMYDIDAE FAMILIA



Emididoen familiaren barruan 36 espezie daude. Ipar Amerikan, Europan, Asiako Mendebaldean, Afrikako Iparraldean eta Argentinan zehar banaturik daudenak urtarrak edo erdi-urtarrak dira. Ibaietan, baso-erreketan, istingadietan eta zingiretan bizi dira.
Bere koloreak aldakorrak dira: grisak, olibakolorekoak, nabarrak, sarritan horiz, laranjaz, gorriz edo zuriz nabariak. Bere oskola ondo garatua dago eta 24 ezkutu marjinal eta bularoskolean 12 ezkutu dauzka. Bere oinak eta besoak palmatuak dira.
Urtero bi errunalditan edo gehiagotan, 3 arrautzatik 8 arrautzara zailak eta hauskorrak jartzen dituzte. Espezie guztien dieta orojalea da.

APOARMATU ARRUNTA
(Emys orbicularis)





NOLA EZAGUTU?: apoarmatu istilzalearen oskola iluna da, bizkarraldean puntutxo edo lerro hori-horiak ditu eta sabelaldean gris-horixkak. Gorputz luzanga eta zapala du, atzetik aurretik baino zertxobait zabalagoa; oskola plaka korneoz osaturik dago, eta apoarmatu gazteek gila modukoa dute erdialdean, zaharrez ez baina. Bizkarraldea eta petoa zuntz-kartilagozko lotailuen bidez atxikitzen zaizkio elkarri, eta horregatik bi atalak mugitu ahal dira. Burua iluna da orbain horiekin, eta lepoa horia da behealdean orbain beltzekin. Hankak sendoak dira, hatzamarrak palmeatuak dira eta erpe luzeak dituzte, eta haiek eta isatsa beltzak dira orbain horiekin; arren isatsa emeena baino luzeagoa da. Isatsean ezkatatxoak dituzte.
Emeak arrak baino gehiago hazten dira. Burua eta lepoa 9 cm-ko luzera izaten dira eta isatsa 8 cm-ko luzera; oskola gehienez ere 30 zentimetro luze izaten da eta kilo bat izaten du, baina normalean ez da heltzen 20 cm-ra eta 700 gramora.
Arren petoa ahurra da eta emeena laua. Bizkarraldeko oskola obala da eta 38 plaka korneo izaten ditu: 5 bizkarrezurrean zehar, 8 alboetan eta 25 ertzetan.
Ahoan moko sendo eta zorrotza du, hotz gabea.

BIOLOGIA: udaberri hastapenetan neguko gordelekutik jalgitzen dira, bikoteak sortzen dira eta arrek emeak estaltzen dituzte, hala lehorrean nola uretan. Uztail aldera, emeek 5-13 arrautza erruten dituzte eurek egindako zuloetan, 15 cm-ko sakonera, uretatik askorik urrundu gabe. Lurra heze ez badago, gerri-besikulek jariatzen duten likido batez bustitzen dute. Arrautzak errun ondoren, lurrez estaltzen ditu eta gero zorua leuntzen du oskolaren sabelaldeaz, zuloa disimulatzeko.
Arrautzak zuriak dira, oskol gogorrekoak dira, 3-4 zentimetroko luzera eta 2-2,2 cm-ko zabalera izaten dira, eta 5-8 gramo bitartean eduki ohi dituzte.
Apoarmatu umeak arrautzetatik irten arte igarotzen den denbora giro-tenperaturaren araberakoa izaten da, baina orokorrean hiruzpalau hil igarota azaltzen dira mundura. Hori gertatzen denean umeek 5-6 gramo izaten dituzte, artean oskola (arre-beltzezka, orbain horiekin) biguna izaten da, eta 4 zentimetroko luzera izaten dira soilik. Apoarmatu helduak baino biribilagoak dira gorputzez, isatsa luzeagoa dute eta orbain horiak biziagoak dira.
Jaio eta berehala amorru handiarekin jaten hasten dira, denetarik harrapatzen dutela, uhandreumeak, apaburuak, barraskiloak eta mota askotako intsektu txikiak, eta ondorioz azkar asko hazten dira. Izan ere, bi urteren buruan 13-21 gramo inguru izaten dituzte eta 5 zentimetroko oskola izaten dute. Bi urte geroago, lau urte dituztela, 90 gramo izaten dituzte eta oskola 7-8 zentimetroko luzera izaten da. Arrak 6-8 urterekin izaten dira ugaltzeko gauza, eta emeek denbora luzeagoa behar izaten dute, 15 urterekin iristen baitira heldutasun sexualera. Berrogei urte izan artean hazten dira; geroztik ez dira gehiago hazten, baina orain-dik urte luzez bizi izaten dira, bai badakigu batzuk ehun urte baino bizitzen direla. Rollinat ikertzaileareN ustez 120 urte inguru bizitzen da, eta beraz berau da Europako animalietatik gehien bizi dena.
Udazkenak aurrera egin ahala egunak geroago eta hotzagoak izaten dira, eta orduan apoarmatu istilzaleak zingira hondoetako basatzan ezkutatzen dira, edo uretako landareen sustraien artean, eta lozorrotu egiten dira. Adituek egiaztatu dute umeek arrautzak izan zirela leku berean igarotzen dutenak negua; helduek, aldiz, zingira eta ibaietako hondoko basatzara jotzen dute.





ELIKADURA: oso trebea da igerian eta uretako denetariko arrain txikiak, igelak, uhandreak eta apaburuak ehizatzen ditu, eta intsektuak harrapatzen ditu zelatan, eta horiez gainera basatzan eta uretako landareen artean arakatuz antzematen dituen zizareak, krustazeoak eta larbak ere jaten ditu. Harrapakinak hankez erauzten ditu, eta zati handiak oso-osorik irensten ditu.
HABITATA: apoarmatu istilzalea uretako espeziea da funtsean; apiriletik urrira bitartean ur geldietan edo korronte txikikoetan aurki daiteke, beti ere landaretza oparoa dagoen tokietan, azkar ezkutatu behar badu ere. Zingiretan eta erreketan ere bizi da.
Ur-ertzean edo ur-bazterreko harri eta enborren gainean eguzkia hartzea gustatzen zaio. Oso izukorra da eta gehienetan burua eta lepoa baizik ez ditu izaten ur gainean. Arriskurik sumatzen badu, hondoratu egiten da beheko landaretzan edo basatzan ezkutatzeko.
Adituek animalia nahikoa adimentsutzat dute; nahiago du beroa hotza baino, eta eguraldi hotza dagoenean ez da irteten bere gordelekutik.



PUNTU HORIAK DITUEN KLEMIDOA
(Clemmys guttata)





EZAUGARRIAK: *clemmys guttatak* oskol beltz bat okertu samarra du, hori-argia koloreko puntu txikiez sakabanaturik. Alerik zaharrenek bere oskoletan dituzten makula horiak oso lausoturik daude. Baina oso arraroa da ale zeharo beltzak aurkitzea.

Bere gorputzadarrak eta burua gris-kolore ilunekoak edo beltzaranak dira eta hori makula txikiak irregularki banaturik dauzkate.

Bere plastroiak hori edo laranja samarra koloretakoa, beltz-koloreko orban obalatu berezia aurkezten du, eta bere ertzearen gainean beltz-koloreko makula luzeak daramatza.

Dortoka-kumeek urdin beltzaxka koloretakoak dira eta bere oskolaren plaka banatan horia-koloreko puntu bakar batekin, orno- plakak izan ezik. Emeengan begiak hori edo laranja koloretakoak dira eta arrengan beltzak.

Bere oinen artean dauden uretako mintza, uretako bizimodua jarraitzen dutela esaten digute.

Arrek begi marroiak, barbuta marroixka eta bere isatsa emeenak baino luzeagoa eta lodiagoa dauzkate eta kloaka isatseko puntara arte egokitu gaberik dago.

Emeen begiek kolorea laranja, barbula horia dauzkate, eta bere plastroiak arrenak baino luzeagoak eta konbexu samarrak dira.

TAMAINA: tamaina handiena 12,5 zentimetroko luzera izatera ailegatu ohi da.

BIOLOGIA: dortoka uretakoa da oso, baina batzuetan lurrean, belardi hezeetan, eta kanaberadietan aurki daiteke. Baso hostotsuak zeharkatzen diren ibaietako errekastoetara joaten da.

Narrasti batentzako tenperatura hotzak jasotzeko gai da. Bere banaketa-aldeak Ipar-amerikako Ipar kostaldera arte hedatzen du eta ikertzaileek espezie honen kopulak 8- tik 10-ra graduko tenperatura ikusi dituzte.

Udako hilabete beroetan, batez ere Floridako hegoaldeko dortoka-populazioa uretako ibilbide moteletako lokatzaren azpian



edo uretako karraskarien meazuloetan estibatzen dira.

Espezie honetako kopulak Martxoaren eta Maiatzaren artean ez diren ur sakonetan edo urmaeletako bazter lohitsuetan gertatzen dira. Kopula egin baino lehen estalketaren errituala egiten dute, horretarako, arrak emea usaintzen du, lurraren kontra bultzatzeari ekin ohi dio eta bere inguruan igeri egiten du.

Batzuetan arrak emeari urrutitik jarraitzen dio eta kopula egiten duten bitartean arrak emea atzetik estali ohi du.

Errunaldiak Ekainean gutxi gora-behera gertatzen dira. Eme batek bi errunaldi egin ohi du. Ekintza hauetan 6 arrautzatik 8 arrautzara bitartean zuriak eta oso txikiak ezartzen ditu (17 milimetrotik, 32 milimetrora bitarteko tamaina du). 60 edo 80 egunen bat behar dituzte eklosionatzeko, dortoka-kumeak jaiotzean 2,5 zentimetroko luzera izan ohi dituzte eta 5 gramotik 8 gramora inguruko pisua dauzkate. Isatsa ere oso luzea daukate. Nabargarria da, halaber, 23 graduko aldakarik gabeko tenperatura batean bakarrik arrak jaiotzen direla eta aitzitik, 28-30 graduen artean bakarrik emeak.





Sarritan, dortoka-kumeak bere lehenengo negua jaio diren habian hibernatuz geratu ohi dira.

HABITATA: bai ibaietan, bai urmaeletan eta bere inguruan bizi ohi da.

ELIKADURA: espezie orojalea da, ur gezetako krustazeoak, intsektuak, zapaburu txikiak, uretako landareak eta alga berde haritsuak jaten ditu.

BANAKETA: apoarmatu hau oso hedatua dago: AEBko Ekialdean, Ontarioko eta Maineko Hegoaldetik, Ipar-amerikarren Atlantikoko kostaldean zehar zabaldi osotik Floridako Iparraldera ailegatuz. Baita Ontarioko Mendebaldean, New Yorkeko Estatuan, Pensilvanian, Ohion, Indianako Iparraldean eta Michiganen, Illinoisko Iparraldera arte, ere.

BASOKO APOARMATUA
(Clemmys insculpta)



EZAUGARRIAK: basoko apoarmatuak daukan arrautza-formako oskola luzeagoa da zabalagoa baino, bizkar-plaka handiak eta nabariak, piramidalaren itxuraz, ingurutik ateratzen diren eraztun zentrokide era ildo erradiatu askotik zimeldurik daude. Bere izena "insculpta" ildo erradiatu hauetatik dator.
Bere atzeko bazterreko-plakak horzdunak dira oso, eta bere bizkarraldeko zentrotik konkorraren itxura daukan bularka bat pasa ohi da.
Bere aurpegia zimurtsua da, tonu horixka zikina edo marroi-grisaxka ditu, pleura-plakaren gainean lerro beltzak era horiak dauzka.
Plastoiaren kolorea horia da, baina plaka bakoitzaren gainean iluna-koloreko orban irregularrak aurkezten ditu.
Bere atzeko bazterrak papar luzea dauka.
Bere gorputz-adarren koloreak marroi-berdexkak dira, laranja-koloreko gunearekin eta behatz guztiak, igeri-mintzien bidez, haien artean loturik daude. Bere azazkalak oso garatuak dira eta hartzen dituen harrapakinak urratzeko balio dituzte.



Lepoko larrua laranja edo horixka-kolorekoa da. Bere aurreko hankek plaka lodiak edo ezkatak dauzkate.
Apoarmatu-kumeek marroi edo grisaxka koloretakoak dira, hankak laranjak eta bere bizkarraldea luzeagoa da zabalagoa baino.
Espezie honek benetako dimorfismo sexuala erakusten du. Arren itsatzak emeenak baino luzeagoak eta lodiagoak dira eta arraren bular-oskola konkaboa da, eta emearena ordez, konbexua da. Halaber, arren aurreko hanketako ezkatak emeenak baino handiagoak eta lodiagoak dira. Halaber, bere azazkalak garatuagoak dira, emeenak baino.
Ez da deskribatu subespezierik.



TAMAINA: 14-23 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: goizero edozein basoko soilgunetan eguzkitan jartzea, beroa hartzeko, gustatzen zaio. Oso beroak eta lehorrak diren Udanetan, estibatzera joan ohi dira eta Neguan zehar, Udaberriko etorrera arte lozorrotu ohi dira.
bere ugaltze-garaia Udaberrian, martxoaren erdialdetik, gertatzen da eta batzuetan Udazkenean (Irailaren amaieran, baina dena den, garai honetan nahiko arraroa da).
Estalketa araldiko dantzarekin hasten da, arrek eta emeek, astiro-astiro lepoa luzatuz eta burua altxatuz elkarri hurbiltzen diote. Bata bestearen ondoan dagoenean (20 zentimetroren bat) burua makurtzen dute eta ezkerretatik eskuinetara mugitu ohi dute. Mugimendu pendular horiek bi ordu edo gehiago iraun ditzakete.



Arrak batzuetan, baina orokorrean ekimena hartzen dutenak, emeak dira.
Estalkia ia-ia beti uretan gertatzen da, arrak kopula egiten duen bitartean emearen oskola (lau hankekin) besarkatzen du.
Arrak buruan dauzkan plaka nabariak edukitzeagatik eta bere oskolaren konkabotasunagatik, emea ezagutzen ditu.
Emeak, Maiatzaren amaieran edo Ekainean, 4 arrautzatik 18 arrautzara ezartzen ditu (loditsuak dira), arrautza bakoitzak 26-tik 40-ra mm-ko diametroa du.
Handik 80 egunen barru eklosionatuko dira eta kumeak jaiotzen dira.
HABITATA: basoetan, zona hezeen ondoan bizi ohi dira. Basoko apoarmatuek izugarrizko orientatzeko sena daukate eta edozein leku ezezagunetatik bere biotopoa aurkitzeko gai dira.
ELIKADURA: bere elikadura belarjalea da batez ere. Belarrak, alga haritsuak, hostoak eta fruitu eroriak jaten dituzte. Noizean behin dietan edozein intsektu edo deskonposizioan dagoen edozein ugaztunen edo hegaztiren gorpua jaten dituzte.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da, herri honetan banaketan handia dauka: Eskozia Berria, Virginia, Ontariotik, Grandes Lagosen, Yorken, Ohion, Michiganen, Minessotan eta Iowako Ipar-ekialdean.



MARMOL-APOARMATU
(Clemmys marmorata)



EZAUGARRIAK: ur gezetako dortoka hau goiko aldearen oskol oliba-kolorekoa edo marroi-kolore ilunekoa da, eta azpiko aldean edo plastroian jeneralki bere larrua grisaxka da, batez ere buruko goiko aldean, baina bere lepoak eta hankek tonu larua daukate.
Apoarmatu-kumeen oskola marroiak edo oliba koloretakoak dira, bazterreko-plaken ertzearen gainean horia-koloreko orbanak ikus ditzakegu, eta bere plastroiak horiak dira.
Bi subespezie daude: alde batetik *Clemys marmorata marmorata*, Hego Kolunbia Britaniarratik San Franziskora bizi da, halaber, Nebadako Mendebaldean. Eta bestetik *Clemys marmorata pallida*, Hegoalderantz bizi dena, San Franziskotik Hego Kaliforniara arte.
TAMAINA: bere oskolak 9 cm-tik 18 cm-ra neurtzen du.
BIOLOGIA: Clemmysen lau motako espezierik uretakoena da. Denbora asko gaineko egurretan edo uretako landareen artean pasatzea gustatzen zaio, baina edozein zarata entzuten duen bezain laster ur-azpian sartzen da eta bera ikustea oso zaila da.
Martxoaren eta maiatzaren artean ugaltze-garaia gertatzen da, bizi den latitudearen arabera. Orduan estalketak gertatzen dira eta apirilaren amaietatik abuztura arte errunaldiak hasten dira. Habiak urmaeletako bazterretan edo urak ez dituen ibaien bideetan hartu eta ondo finkaturik dauden lekuetan daude. Emeak hantxe, batetik hiru errunaldira arte jartzen ditu, errunaldi bakoitzean 3 arrautzatik 11 arrautzara bitartean ezartzen ditu. Arrautzak luzangak, gogorrak eta zuriak dira, 22 eta 35 mm-ko diametroa neurtzen dute. Inkubazioaren iraupenak 70-80 egunen artean iraun ohi du, handik aurrera jaiotzen diren kumeek 25 milimetroko luzera neurtzen dute eta 5-tik 8-ra gramoko pisua dute.



HABITATA: paduretan, ur-laster geldoetan eta ureztaketako kanaletan bizi da. Leku hauetan uretako landare asko eduki behar da ondo ezkutatzeko eta ez nabarmendu pasatzeko
Ezohikoki 1800 metroko altuera ur-laster argietan eta nahiko azkarretan aurki daiteke.
ELIKADURA: bere elikadura orojalea da, intsektuen larbak, uretako krustazeoak, eta arrainkumeak asko gustatzen zaizkio.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak Ipar Amerikako kostaldeko mendebaldea, Nebada, Kolunbia Britaniarra, eta Kalifornia osatzen ditu.

MUHLENBERG-EN APOARMATUA
(Clemmys muhlenbergii)





EZAUGARRIAK: bere oskola konkortu samarra eta nabar-gorrixka koloretakoa da. Bere plastroia marroia eta batzuetan ia-ia beltza da. Bere plaka guztiak luzeagoak dira, zabalagoak baino. Bere buru txikia marroi-kolore ilunekoa da eta begien atzetik izugarrizko orban horixka dauka. Aurreko hanketan ezkata lodiak eta azazkal luzeak eta zorrotzak ditu.
Dortoka-kumeak, dortoka helduekin konparatuz, oso desberdinak dira. bere oskola marroi uniforme koloretakoak dira eta zentral aldean, plastroia horia, orban ilun batekin daukate.
TAMAINA: bere oskola 8-tik 11,4 cmra luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: egunaren beroen orduetan ekintza handia egiten du, izan ere, berak beste Clemmysen motatako kideek baino berotasun gehiago behar du.



Bizi den enborraren gainean eta urmaeletako gaineko landareen gainean eguzkitan jartzen du, uztaila ailegatzean, gordelekuetara hibernatzera baztertu ohi da, gordeleku hauek, marraskariek uzten dituztenean haiek joaten dira, harrien azpian edo urmaeletako bazterretan dauden enbor erorietan gordelekutzat hartzen dituzte. Uztailean eta abuztuan bero handia dagoenez estibatzeko ohitura daukate.
Bere estalketa ikustea ez da batere erraza. Emeak landaretzaren artean kamuflatu egiten dira eta arrek emeak aurkitzeko denbora ematen dute. Maiatzaren eta ekainaren artean, uretan bakarrik akoplamendua gertatzen da. Errunaldiak ekainaren erdialdetik uztailaren amaierara arte gertatzen dira.
Eme bakoitzak errunaldi bat bakarrik egiten du, 3 arrautzatik 6 arrautzara bitartean ezartzen ditu, arrautzek oskol biguna daukate 15 mm-tik 30 mm-ra bitartean neur dezakete.
Arrautzak abuztuaren amaieran edo irailaren hasieran eklosionatzen hasi ohi dira, baina bere banaketa-aldeetako eskualderik hotzenetan dortoka-kumean jaio ondoren, lurrean geratzen dira eta datorren Udaberrira arte uretara ez dira joango.



HABITATA: gelditurik dauden uretan bizi dira, baita landaretzaz beteta dauden urmael txikietan, itsasoko mailaren eta 1200 metroko altitudearen artean aurkitzen duten uretan, ere.
ELIKADURA: dortoka hau orojalea da. Intsektuak, zapaburuak, arrainkumeak, uretako erraboilak, algak edo uretara baia eroriak jaten ditu.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da. Bere banaketa-aldea Masachussetseko Mendebaldean eta Connectican, New Yorkeko Ekialdean dago. Hegoalderantz, Pensilvanian, New Yerseyn, Virginian, Ipar Carolinan, Tennessen, Marylanden eta Delawaren aurki dezakegu.

BLANDING-EN APOARMATUA
(Clemmys blandingii)



EZAUGARRIAK: Ipar-amerikako uretako dortoka hau, Europako apoarmatuaren antzekoa da (*Emys orbicularis*), baina handiagoa da, 27 zentimetroko luzera izatera irits daiteke eta europarra, aitzitik, 20 zentimetroko luzera izatera ailega daiteke.
Bere oskola luzanga eta leuna da. Zer motatakoa den jakiteko onena da bere oskolaren kolorea aztertzea, beltz-urdina da, horixka-koloreko puntu ugari irregularki banaturik ditu. Bere bazterreko-plaketan puntu ugariagoak dira.
Bere burua, lepoa eta hankak nabar-grisaxka koloretakoak dira, baina beheko barailak eta eztarriak hori argi-koloretako deigarria aurkezten dute. Lepoa oso luzea da.
Dimorfismo sexual txiki bat badago, hau da: arren plastroia emearena baino konkaboagoa da.



TAMAINA: bere oskola 13 zentimetrotik 26,8 zentimetrora luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: espezie honek zeharo uretako ohiturak dauzka. Udaberriaren amaieran edo Udaren hasieran bere akoplamendua uretan gertatzen da. Eztei-geldialdia laburra da. Emeek, ekainaren erdialdetik uztailaren amaierara arte bere arrautzak ezartzen dituzte. Denbora honetan zehar errunaldi batetik hiru errunaldiaren bitartean egiten dituzte, errunaldi banatan 6 arrautzatik 7 arrautzara bitartean ezartzen dituzte. Arrautza bakoitzak arrautza-oskol zimeldua du eta 25 mm-tik 35 mm-ra bitartean neurtzen du.
Inkubazio labur bat pasa eta gero (65-80 egunen artean) arrautza gehienak Irailean eklosionatu ohi dira. Beranduko arrautzak urriaren hasieran eklosionatzen dira, orduan jaioberriak haien gordelekuetan datorren udaberrira arte hibernatu ohi dute.



HABITATA: ur-laster lasaiagoak diren ibaitan bizi da, ur-landaredi ugari dagoen lekuetan. Lakuetan, urmaeletan eta istingadietan ikus daiteke.
ELIKADURA: bere dieta haragijalea da: uretako krustazeoak, zapaburuak, bareak, barraskiloak, arrainak eta intsektuak jaten ditu, baita uretako landareak ere.
BANAKETA: Ipar Amerikako ur gezetako dortokaren espezierik iparraldekoena da, izan ere AEBko Iparraldean eta Kanadako Hegoaldean, Ontarion, Laku Handienetan, Nebraskan, Iowan eta Missouriko Iparraldean. New Yorkeko Estatuan, Massachussetsen eta New Hampshire eta Maineko Hegoaldean.



DORTOKA KAXA ARRUNTA
(Terrapene carolina)



EZAUGARRIAK: dortoka kaxa arruntari ere amerikar terrapenea esaten dio, lehorreko espezie bat da. Bere oskolak ezaugarri bereziak aurkezten ditu. Bere sorbalda oso konbexua da, eta bere bular-oskola (bere tamaina eta sorbalda-ren tamaina luzera berdinak dira), bi alde mugikorretan zeharka zatituta dago, modu batean artikulaturik daude ezen haiek oskolaren aurreko eta atzeko bazterrekoekin lotzen baitituzte eta horrela, gorputza oskol sendoaren barruan sartuta geratzen da. Oskol politaren kolorea horia eta beltza da.

Artikulazio honi ezker, bular-oskolaren aurreko eta atzeko gingilak mugi daitezke, eta mugimendu honek sorbaldaren aurreko eta atzeko bizkarraldekoak elkar ukitzen dutela jarri.

Animalia beldurtzen denean, burua, hankak eta buztana oskolaren barrurantz, atzeratzen ditu , eta bular-oskolaren bi ertzak mugitzen ditu ,eta orduan hermetikoki, korneo-plaken kutxa sendo batean izten da .

Bere buruaren kolorea eta bere gorputzadarrena, oskolarena bezalakoa da: erretikulu beltzak eta horiak daramatzate. Lehorreko dortoka guztiek bezala bere atzamar guztiek azazkal sendoak zulatzeko dituzte.

Sei subespezie deskribatu dira, haietariko lau Ipar Amerikan eta beste biak Mexiko-n.

Terrapene Carolina dortoka kaxa arrunta da. Maine-ko Hegoaldean, Georgiako Hegoalderara arte aurkitzen da, baita



Michigan-en, Illinois-en eta Tennesse-n ere.

Terrapene Carolina Bauri. Floridako dortoka kaxari deitzen diote, izan ere Floridako lurralde txiki batean bizi da. Bere oskolak marrazki deigarriak eta marra argi bereziak buruko alde bakoitzean aurkezten ditu.

Terrapene Carolina major. Golkoko dortoka kaxa bezala ezaguna, Mexikoko Golko-ko kostaldeko lautadetan Florida-ra arte aurkitzen baita. Subespezie guztiengandik handiena da, izan ere 20 zentimetroko luzera izatera irits daiteke.

Terrapene carolina mexikarra. Ekialdeko Mexiko-ko dortoka kaxari esaten diote. Mexiko-ko eskualde txiki batean, Tamaulipas-eko Hego-ekialdean, San Luis Potosi-ko Iparraldean eta Veracruz-eko Iparraldean bizi da eta.

Terrapene Carolina Triunguis. Subespezie hau Missouri-n, Texas-eko Hegoaldean, Alabamara arte bizi da. Bere oskola oliba eta grisaxka koloretakoen artean dabil.



Terrapene Carolina Yucatana. Yucatan-go dortoka kaxari esaten diote. Bere banaketa-aldeak Yucatan penintsula osatzen du (Campeche, Quintana Roo eta Yucatan). Bere oskola marroi-kolore ilunekoa, luzanga eta konkortua da oso.

TAMAINA: bere oskola 20 cm-ko luzera izatera ailega daiteke.

BIOLOGIA: akoplamenduaren errittual zaila egin ondoren, kopula egitean, arrak emearen lepoari kosk egin ohi dio.

Maiatzaren eta ekainaren artean errunaldia gertatzen da. Emeek hiru errunaldi egiten ohi dituzte, 3 arrautzatik 8 arrautzara (luzeak eta oso txikiak) bitartean ezartzen dituzte. 21 mm-tik 30 mm-ra bitartean neur dezakete. Inkubazioak 80 egun baino gutxiago irauten du, ekintza hau gertatu ondoren dortoka-kume txikiak jaiotzen dira. Kumeak dortoka helduak baino koloretsuagoak dira.

HABITATA: lautadetan, landaredi ugari dagoen lekuetan bizi da. Lautada handietara, alubioiez beteta eta landaredi ugari dauden lekuetara, joaten den dortoka kaxa lehorreko espezie bat da. Eguneko lehenengo orduetan eraginkorra da oso.

Animalia termofiloa da, beroa maite du, sarritan eguzkitan termo-erregulatzeko dago, goizeko lehenengo orduetan batez ere, eta bero handia ez dagoen egunetan egun osoa ematen du eguzkitan, leku ospeletatik ihes eginez.

ELIKADURA: bere dieta orojalea da. Belarrak, fruta, barraskiloak, intsektuak eta zizareak jaten

Neguan hibernatzera joaten da. Horretarako leku apartatuak aukeratzen ditu, adibidez: zuhaitzen enbor eroriak, zuloak dituzten harri handiak, horrela egunik hotzeenak egoten da Udaberria agertu arte. Egun euritsuak direnean bere gordelekutik ez dira joaten



BANAKETA: bere banaketa-aldeak Ipar Amerika osatzen du: AEB-ko Ekialdean ikus daiteke, Mainetik Floridara arte (Hegoaldetik), Missouri eta Texasera arte (Mendebaldetik).

Sarritan gatibualdian mantentzeko, konpainia animaliatzat, harrapatu dute, baina sarritan lorategietara ihes egiten du, eta mantentzen dituztenez, populazio ugaltzaileak eta egonkorrak sortzen ditu, hau gertatzen da nahiz eta bere banaketa-alde naturalak ez izan eta urrun egon.

NELSONEN DORTOKA KAXA
(Terrapene nelsoni)





EZAUGARRIAK: nelsonen dortoka kaxa, dortoka kaxa txikia da. Bere oskola konkortua da oso, baino goiko aldean nahiko zapaldua da. Bere kolorea marroi-argia edo horixka da, eta horixka orban txikiez sakabanaturik dago. Bere aurreko bazterreko- plakak ez dira horzdunak eta bere plastroia handia da, beixa-kolorea edo horixka du, horia koloreko orban batzuekin. Bere larruak eta oskolaren kolorea berdina du.

Hankek, bai aurrekoak bai atzekoak, lau behatz eta behatzarteko mintzak dauzkate.

Bi subespezie daude: dortoka kaxa punteaketa (*Terapene nelsoni nelsoni*). Dortoka honek bere banaketa-aldearen hegoaldean hartzen du, Pedro Pabloren eskualdeak, Nayariy eta Mexiko. Berak, bere oskolaren puntu hori-kolore argiakoak, handiagoak direlako ezaugarri ditu. Baina beste subespezieek dauzkan puntu hori-koloretakoak urriagoak dira (Klauber-en dortoka kaxa).

Klauber-en dortoka kaxa (*Terrapene nelsoni klauberi*). Sonoratik Hego-mendebaldera eta Sinaoako Ipar-mendebaldean, Terreosaren ondoan dago. Bere oskolaren puntuak argiak, txikiak eta ugariak dira. Honek ditu ezaugarri. Halaber, subespezie Terrapene nelsoni nelsoni 1000 metrotako altitudera arte bizi den bitartean Terrapene nelsoni klauberi beti 1000 metroren azpitik bizi da.

TAMAINA: bere oskola 15 cm-ko luzera izatera irits daiteke (gehienezkoa bezala).

BIOLOGIA: Mexikoko baso-tropikaletako hezeguneak asko gustatzen zaizkio, baina horretarako ez dute izan behar 1000 metroko altitudera baino gehiago.

HABITATA: leku hezeetan bizi da: zelaietan, errekastoetan, oso sakonak ez diren urmaeletan, ur landaredi ugari dagoen lekuetan.

ELIKADURA: espezie oportunista bat da, intsektuak, animalia hilik, landareak, fruituak jaten ditu, batez ere Udaberrian, izan ere landaretza goren aldian dago.

Bere ugaltze-garaia eta errunaldiak urte osoan zehar gertatzen da. Dena den, emeek errunaldi bakoitzean ez dituzte hiru arrautza baino gehiago ezartzen (30 cm-tik 47 cm-ra bitarteko tamaina du).

Bere arrarotasunagatik espezie hau CITTES-eko Bigarren Gehigarrian sarturik agertzen da, eta hau dela kausa bere harrapaketa eta komertzializazioa debekaturik daude.

BANAKETA: Mexikoko endemikoa da. Nelson-en dortoka kaxa, bakarrik Sonorako, Sinaboako eta Nayariteko Mexikar probintzietan bizi da.

COAHUILAKO DORTOKA KAXA
(Terrapene coahuila)



EZAUGARRIAK: Coahuilako dortoka kaxaren oskola, oso konkortua eta horixka-koloretakoa da. Bere plakak marra beltzekin mugaturik daude.
Aurreko hanketan bost behatz dauzka eta atzekoetan, berriz lau behatz.
Bere buruko kolorea marroi-grisaxka da, baina berdearen antzeko koloretakoa du eta bere hanketako plakak horixkak dira.
Apoarmatukumeen koloreak eta helduenak baino biziagoak eta deigarriagoak dira. Bere oskola horia-koloreko puntuz beteta agertzen da eta begiaren atzeko bazterrean daukan marra horia tinpanoaren atzetik hedatzen da.
Espezie honek kloaka-poltsa dauka eta errunaldiaren lekuan bustitzeko erabiltzen du (batez ere eguraldia lehorra eta beroa dueneran).



TAMAINA: bere oskola 12 cm-tik 16,5 cm-ra luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: espezie urtarra da eta honek, bere hanketako behatzarteko mintzek esaten dizkigute.
Udazkenean, irailaren eta azaroaren artean, eta udaberrian, martxotik maiatzera arte, araldi garaia gertatzen da. Emeek arrautza eliptikoak ezartzen dituzte, arrautzaren tamaina 1,7 mm-tik 33 mm-ra izaten da. Sakona ez den zulo txiki batean errunaldi batzuk egiten dituzte. Emeek arrautzak landare-oinarri baten gainean jartzen dituzte.
Errunaldi banatan 2-4 arrautzaren artean ezartzen ditu, errunaldiaren amaieratik 6 egunen barru, arrautzak eklosionatu ohi dira.
HABITATA: urak hartzen duen lekuetan, ibaiaren errekastoetan eta sakonak ez diren urmaeletan landaretzaz beteta bizi dira.



Batzuetan uretako hiazintoen eta igebelarren artean daude.
ELIKADURA: bere dieta orojalea da, baina intsektuak, krustazeoak, uretan eta uretik at harrapatzen dituen arrain txikiak jaten dute batez ere.
BANAKETA: Mexikoko endemikoa da, bakarrik leku batean aurki daiteke: *"Cuatro Cienagas"* delakoa, Coahuilako probintzian.

DORTOKA KAXA APAINDUA
(Terrapene ornata)



EZAUGARRIAK: hezeguneetako lehorreko dortoka hau bere oskolaren goiko aldean horia-koloreko orno-marra dago, eta oskolaren puntaren punta doa.
Plaka bakoitzak hori-koloreko lerro finak erradiaturik ditu, marroi-kolore ilunekoa edo beltzaxka hondoaren gainean.
Bere plastroia oso luzanga da eta bere ezkatek ez dituzte punturik, baina plaka bakoitzaren gainean marra erradiaturik asko, itzal marroi-kolore-



takoa, dauzka. Kromatikoki espezie hau, Terrapene carolina baino erregularragoa da.
Bere plastroiaren apainketa eta koloreak atzealdean daudenak ia-ia berdinak dira.
Bere burua txikia eta marroi-koloretakoa da, halaber, puntu edo marra horiak daramatza.
Aurreko hankek bost behatz dauzkate eta atzekoek berriz, lau.
Arren irisa gorri-koloretakoa da, eta aurreko hanketako behatz lehenengoa barrurantz jiratzeko gai da, akoplamendua egiten duten bitartean, arrak emeari heltzeko.
Bi subespezie daude:
Dortoka kaxa apaindu arrunta *(Terrapene ornata ornata)*. Indianan eta Wyomingetik Ekialdera, Luisianara arte eta New Mexikora arte bizi da.



Ezaugarritzat har dezakegu pleura-plakaren hamargarrena markaturik daukala, hantxe 5-8 marra erradiatuen artean dauzka eta ilun-koloretakoak izanez.
Basamortuko dortoka kaxa apaindua *(Terrapene ornata luteola)*: Texasen (Trans Pecos-eko eskualdean), Arizonako Hegoaldean, Sonorako eta Chihuahuako Mexikar probintzietan bizi da. Subespezie honek 11-14 marra erradiatuen artean aurkezten ditu. Marra hauek pleura-plaka hamargarrenaren gainean daude eta bere aspektua eta subespezie *Testudo ornata ornataren* aspektua baino argiagoa eta horixkagoa da.
Animalia helduek bere koloreak galtzen dituzte.
TAMAINA: espezie txikia da eta bakarrik 14 cm-ko luzerara arte ailega daiteke.
BIOLOGIA: eguneko dortoka da, denbora asko eguzkitan eta leku lasaietan eman ohi du, normalean edozein zuhaixken ondoan egon ohi da (larrialdia balego zuhaixkan ezkutatuko litzateke). Udaberrian ugaltze-garaia gertatzen da. Espezie honen akoplamendua oso luzea da eta erdi ordu baino gehiago dirau.
Emeak, ernalduak izan ondoren, maiatzaren era uztailaren artean errunaldia egiten du. Horretarako lurrean sakona ez den habia bat zulatu ohi du, 5 edo 6 zentimetroko tamaina eta 2 arrautzatik



6 arrautzara bitartean ezartzen ditu, 23 mm-tik 41 mm-ra bitarteko tamaina du (arrautza nahiko handia da bere gorputzaren tamainarekin konparatuz).
Ernalketa urri honek espezie hau harraparitzarako oso sentibera dela esaten du eta zer motatako zailtasun dagoen hondakin aleen populazioetan bere kideak berriz konpontzeko.
Inkubazioak 70 egun iraun ohi du, denbora pasa eta gero dortoka-kumeak jaiotzen dira, urriaren amaiera hibernatzen dute eta datorren urtean, martxora arte edo apirilera arte, ez dira esnatuko.



HABITATA: bere habitata belardi ezkoetan eta lautadetan (zuhaizik gabe) dago, non belar ugariak diren. Zuhaixka asko dauden lekuetara joaten dira, izan ere hantxe oso erraza da ezkutatzea.
ELIKADURA: bere elikadura orojalea da, intsektu mota asko harrapatzen ditu: matxinsaltoak, kakalardoak, ehunzangoak, eta halaber, baiak.
BANAKETA: espezie honen banaketa-aldeak, AEB-ko Hegoaldea, eta Mexikoko Iparraldea ditu. Illinoisen, Iowan, Hego Dakotan, Wyomingen, Luissiana-ko Hego-ekialdean, Texasen, New Mexikon, Arizonako Hego-ekialdean eta Sonorako eta Chihuahuako Mexikar probintzietan aurki daiteke.

APOARMATU ERRETIKULATUA
(Deirochelys reticularia)



EZAUGARRIAK: ur gezetako apoarmatu honek, erdipurdiko tamaina du, begien ondoan marra eta lerro hori asko dauzka, hemendik bere izena erretikulatua datorkio.
Bere irisa ere horia da. Bere oskola luzanga eta konkortua da, orno-plakak luzeagoak dira, zabalagoak baino. Horixka-koloretakoa edo nabar kolore ilunetakoak dira.
Bere plastroi hori-kolore argiakoak, orban ilunetakoak dauzka, atzaparrak luzeak eta bere hankak palmatuak dira. Honek uretako espezie bat dela esan nahi du. Bere larrua marroi-berdexka koloretakoa da eta marra horiak edo zuriak dauzka.
Hiru subespezie daude:
Ekialdeko apoarmatu erretikulatua (*Deirochelys reticularia reticularia)*. Mississippi-ko Ekialdean bizi da. Sarritan, berak bizkarraldearen inguruan lerro hori bat ezaugarri du eta halaber femoral-plaka eta uzki-plakaren artean puntu bat dauka.
Florida-ko apoarmatu erretikulatua (*Deirochelys reticularia chrysea)*. Bakarrik Florida-ko Iparramerikar Estatuan bizi da. Bere bizkarraldearen inguruan marra luze bat laranja-koloretakoa dago.
Mendebaldeko apoarmatu erretikulatua *(Deirochelys reticularia miaria)*. Mississippiko Mendebaldean aurki daiteke. Berak beste bi subespezieak oskola baino zapalduagoa dauka eta gainera bere bizkarraldearen lerro erretikulatuak luzeagoak dira.



Plastroiaren gainean dagoen itzal-marrazki batek plakaren artean dauden suturak zehatz-mehatz markatzen ditu.
Animalia helduek kokotsa eta lepoa lerrorik gabe dauzkate, beste subespezieak ez bezala.
TAMAINA: bere oskola 12 cm-tik 25,5 cm-ra bitarteko tamaina izan daiteke.
HABITATA: espezie zeharo urtarra da. Ur-laster lasaiagoak diren lekuetan bizi da, gelditurik dauden uretan, aintzira lasaietan. Inoiz ez da aurkitzen ur-korronte azkarretan.
Bere ugalketa gutxi ikasita izan da. Jakiten da emeek, Otsailaren eta Martxoaren artean errunaldia egiten dutela, arrautzak ezartzeko, lurrean zulatzen dutela (horretarako beti uretara hurbiltzen dira).
Eme bakoitzak 1-3 errunaldiaren artean egiten ditu, errunaldi banatan arrautza asko, 5 arrautzatik 15 arrautzara bitartean ezartzen ditu, 22 mm-tik 36 mm-ra bitarteko tamaina du.
Kumeek jaiotzeko behar duten denbora oso aldakorra da, urteko garaiaren arabera da, normalean 76-116 egunen artean dago.
ELIKADURA: bere elikadura orojalea da. Arrainak, narrastiak, intsektuak, igebelarren hostoak eta uretako landare mota asko jaten ditu. Dortoka-kumeak haragijaleak dira baina denboraren poderioz haragijaleak belarjale bihurtzen dira.
BANAKETA: AEB-ko endemikoa da. Bere banaketa-aldeak Ipar Amerikako Hego-ekialdeetako Estatu eguzkitsuagoak osatzen ditu (Virginia, Ipar Carolina, Florida eta Atlantikoko kostaldea). Mexikoko Golkoko itsasaldeko lautadetan, Texasera arte baita Mississippiko Ipar-mendebaldean, Oklahoman eta Misurin ere.



GRAPTEMIDO GEOGRAFIKOA
(Graptemys geographica)



EZAUGARRIAK: uretako dortoka honen oskola berdexka edo marroixka-koloretakoa da, bere erdialdeko ezkatek xerraren hortzen antza dute. Beheko bazterreko plakak horiak dira ilun-koloreko orban biribilekin.
Helduengan, plastroia zeharo horia edo beixa da ,ordea, dortoka-kumeengan marra ilun batzuek, bere plakaren suturazko lerroak apaintzen dituzte.
Aurpegia luzanga da eta sudurra ez da nabaria. Burua eta lepoa berdexka-koloretakoak dira eta marra hori asko dituzte. Espezie honen marka oso berezia barailetan ikus dezakegu: barailetan inguruan daukan marra zabal bat eta beixa-koloretakoa eta begien azpiraino ailegatzen zaiola.



Espezie honek dimorfismo sexuala oso nabargarria du. Arrak emeak baino txikiagoak dira (arrak 16 cm-ra luzera izatera irits daitezke, emeak, ordea, 30 cm-ra). Honez gainera, emeek, arrekin konparatuz, burua luzeagoa eta oskola biribilagoa dauzkate.
TAMAINA: bere oskolak 10,05 cm-tik 16 cm-ra bitarteko tamaina du, emea, ordea, 30 cm-ra luzera izatera ailega daiteke.
BIOLOGIA: espezie mesfidatia da oso, beste animalia bere ondoan hurbiltzeari ez dio uzten. Udaberrian eta udako hasieran bere eztei-geldialdi gertatu ohi da, eta errunaldia maiatzaren amaieran hasten da eta Uztailaren amaierara arte luzatzen da.
Emeek errunaldi asko lortzen dituzte , gutxi gorabehera dozena bat arrautza luzanga.
Arrautza bakoitzak 22 mm-tik 33 mm-ra bitarteko diametroa du.
Inkubazioak 75 egun dirau, handik aurrera dortoka-kumeak jaiotzen dira. Tenperaturaren arabera emeak edo arrak jaio daitezke. Tenperatura 30ºC baino altuagoa bada emeak izango dira, baina 2-eta 28 ºC-en artean bada, arrak jaioko dira.
HABITATA: ibai handietako ur geldoetan bizi dira, baita landaretza ugaria eta hondo hondartsuak edo likatsuak dauden aintzira handienetan ere.
ELIKADURA: barraskiloak, intsektuak, larbak, arrainkumeak, uretako krustazeoak jaten ditu, batzuetan uretako landareak jan ohi ditu.
BANAKETA: bere banaketa-aldea Ipar Amerikan dago: Quebecetik Hegoaldera, Vermontik Ipar-mendebaldera, Wisconsinetik Hegoaldera, Georgiako Hegoaldean, eta Arkansasen aurki daiteke. Baita Susquehanna ibaiaren errekastotik Pennsylvanian, Marylan-den eta Delaware ibaian ere.

CALGEKO GRAPTEMIDOA
(Graptemys calgei)



EZAUGARRIAK: calgeko graptemidoa dortoka oso txikia da (11cm-tik 16 cm-ra bitarteko tamaina du), bere oskolaren goialdean zapaldua eta horzduna da, bere kolorea marroia edo berdexka da. Plaka bakoitzaren bazterrak marka horiez apaindurik dago. Bere plastroia hori-zurbil koloretakoa da. Itzal marrazki batek bere plakaren loturak markatzen ditu.
Bere buruak mutur zorrotz samarra aurkezten du, bere kolorea beltza da, hori argi-koloreko marra ugariekin. Kokotza zeharkako marra beixa batekin apainduta dago.Bere garondoan seinale bat (V-ren itxuraz) dauka. Espezie honen ezaugarri berezia denez, oso erraza da ezagutzea.
Arrak emeak baino txikiagoak dira (11 cm-ra izatera ailega daitezke, emeak, ordea, 16 cm-ra izatera ailegatu ohi dira. Emeen eta arren artean konparaketa bat egin ondoren esan daiteke: Arren bizkarreko-ezkatak nabariagoak direla. Emeen oskola luzeagoa dela eta ornoen tuberkuluak txikiagoak direla. Horrez gainera, bere plastroiaren gainean (bai aurpegian bai bizkarraldean) marrazki koloretsu batzuk apaintzeko dauzkate.
TAMAINA: arrek 11 cm-ko tamaina dute, emeek 16 cm-ko tamaina daukate.



BIOLOGIA: espezie urtarra da, beste *Graptemys* mota ez bezala, eguzkitan, harrien gainean edo zuhaitzen enbor erorietan egon ohi da. Bai akoplamenduari buruz, bai errunaldiei buruz, oso gutxi jakiten da.
ELIKADURA: intsektuak eta moluskuak dira gehien gustatzen zaizkiona.
HABITATA: ur garbietako ibai geldoetan eta ur-landaredi ugari dagoen lekuetan bizi da.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da. Espezie hau gutxi ezaguna da, eta orain dela gutxi deskribatua izan da. Bakarrik ur lasaietako ibaiadarretan bizi da, hau da: Guadalupe eta San Antonio Ibaietan, Texaseko Ipar-amerikar Estatuko hegoaldean eta erdialdean.

FLORIDAKO DORTOKA
(Chrysemys picta)





EZAUGARRIAK: Floridako dortokak oskol leuna, obalatua eta gandor ornodunik gabe ezaugarri ditu. Bere kolorea berdexka edo belz-koloretakoa da. Bere bazterreko plakek ildaska gorri biziak aurkezten dituzte. Bere buruak eta lepoak oliba-koloretakoa, horixka edo gorrixka-marra nabariekin izaten dituzte. Hanketan marra finak eta gorriak dauzkate, gainera atzamarretan dauzkaten atzaparrak sendoak dira oso. bere banaketa-aldeetako ekialdeko eta hegoaldeko eskualdeetan bizi diren subespezieek (Ipar Amerikan), bular-oskola hori koloretakoa dute, aitzitik, erdiguneko eta mendebaldeko eskualdeetan bizi direnek horia eta ilun-koloretako orbanak dituzte. Espezie honek dimorfismo sexuala oso nabaria aurkezten du. Emeak arrak baino handiagoak dira oso, arrek aurreko hanketan kako batzuk, akoplamenduaren errituala egiten duten bitartean, erabiltzeko dauzkate, halaber, bere buztana luzeagoa da.

Lau subespezie deskribatu dira.

Chrysemys picta picta: Ekialdeko *Chrisemis pinta* du izena, izan ere, Kanadatik Hego-Ekialdean, Inglaterra Berrian, Ipar Amerikako ekialdeko Estatuetan, Georgiara arte eta Alabaman, aurkitzen da. Bere oskolaren plaken loturetan marra argiak aurkezten ditu eta plastroia zeharo horia du.

Chrysemys picta belii: Mendebaldeko Chrisemis du izena, subespezie hau Ontarioko mendebaldean, Kanadatik Hegoaldean, Kolunbia Britaniarran, Missurin, Oklahomako Iparraldean, Koloradoko Ekialdean, Wyoming, Idahon, Oregongo Iparraldean bizi da. Azpi-espezie guztien artean handiena da. Bizkarreko-plaketen loturetan argi lerroen muntadura bat, eta plastroian itzal- marrazkia oso aldakorra aurkezten du.

Chrysemys picta dorsalis: Hegoaldeko Chrisemis izena du, subespezie hau Illinoiseko Hegoaldean, Missourin, Alabamako Estatuko Iparmendebaldean, Misissippi osoan zehar, Mexikoko golkora arte, eta Lousianan, bizi da. Hori eta beltz-kolore biziak ditu eta oskolaren goialdetik marra laranja edo gorrizka bat zehatz-mehatz doa. Bere plastroia zeharo hori-koloretakoa da.



Chrysemys picta marginata: Iparraldeko Chrisemis du izena, Quebeceko Hegoaldean, Ontarion, AEB-ko Erdiguneko Estatuetan, Tennessera arte eta Alabamako Bazterrean aurkitzen da. Mississippitik Ekialdera, Inglaterra Berriara arte, Pensilvania eta Virginia Orno-plaka eta pleura-plaken artean dauden suturak, txandakakoak dira, aitzitik, *Chrysemy picta picta*-ren suturak lerrokaturik daude. Bere plastroian aurkezten den itzal- grafismoa oso aldakorra da.

TAMAINA: bere oskolak 10 cm-tik 25 cm-ra bitarteko tamaina du

BIOLOGIA: antziretako eta istingadietako ur-laster geldoetan bizi den dortoka zuhurra da. Gustuko ditu bereziki landaredia ugariko hondo lohitsuak, halaber, uretako tenperatura hotz handiegia ez zaio gustatzen.



Bizi den lekuaren arabera, eztei-geldialdia martxoaren eta ekainaren erdialdean gertatzen dira, baina batzuetan baita udan eta udazkenean ere, gero emearen aurrean jartzen da. Pixkanaka-pixkanaka arra emeari hurbiltzen zaio, eta aurreko hankekin aurpegia laztantzen dio. Hori egin eta gero, astiro-astiro arrak emea potxingoaren hondora kopulatzeko, arrastatzen saiatu ohi da .

Handik aurrera emeek errunaldi asko egiten dituzte, errunaldi banatan 6 arrautzatik 10 arrautzara bitartean ezartzen dituzte, esan behar da klimatologiaren eta subespezieaeren arabera izango dela. Habiak, substratu hondartsuetan egon ohi dira eta arrautzak 20 mm-tik 23 mm-ra bitartean neurtzen du , eta 7 gramoko pisua dute.

Inkubazio-denboraldiak, 80 egunen bat irauten du, hau pasa eta gero, arrautzak eklosionatu ohi dira.

Dortokarik ezagunena da, izan ere AEB-tik konpainia-animalien nazioarteko merkatuetara arte esportatzen dute. Dena den bere banaketa-alde osoan oso arrunta da.



Gatibualdian, dortoka hau nahiko apurkorra da. Ondo zaintzen ez bada (ur epela, elikadura ugaria, garbitasun zuzena, etab…) sarritan larru-arazoak eta koloretasun eza pairatzen du.

HABITATA: ur-laster geldoetan, urmaeletan eta putzuetan bizi da.

ELIKADURA: dortoka-kumeak haragijaleak dira, intsektuak, zapaburuak, eta arrainak jaten dituzte. Helduek, ordez, ia-ia zeharo belarjale bihurtzen dira, uretako bulboak eta uretako landare mota asko jaten dituzte.

BANAKETA: bere banaketa-alde oso hedatua dago, ia-ia Ipar Amerika osoa, Kanada-ko Hegoaldetik Mexiko Berriraino.

BARBURREKO GRAPTEMIDOA
(Graptemys barbouri)



EZAUGARRIAK: espezie honen oskolaren goiko plakak *"xerraren hortzak"* bezala aterarzen dira. Hamabigarren eta hamahirugarren bizkarreko-plakak tuberkulu nabarmena dauka. Berdexka ete marroi beltzaxka-koloretakoa du. Bazterreko eta pleura-plaken gainean orban erregular zuri eta hori-koloretakoa dauzka. Orno-plakak zabalagoak dira luzeagoak baino. Bere izugarrizko plastroia horiaren eta marroi argiaren artekoa dago.

Larruaren kolorea marroia edo beltzaxka da, beixa edo hori-koloreko marrak ditu. Bere buruan hiru alde zabal argiak daude, bata sudurraren gainean eta beste biak begiaren atzetik. Bere kokotxa marra argi batekin apainduta dago.

Arren burua emeena baino motxagoak eta txikiagoak dira, 13 cm-ko luzera izatera irits daitezke, emeak ordea, 32 cm-ko luzera izatera ailega daitezke.

TAMAINA: emeak 32 cm-ko luzera izatera irits daitezke. Arrak ordea, 1 cm-ko luzera.

BIOLOGIA: bere ugaltze-garaia maiatzaren eta ekainaren artean gertatzen da. Dortoka honek kopulatu baino lehen eztei-geldialdi bat egin ohi du, hau da: arra emea hurbiltzen hasten da, azkenean bere aurrean jartzen da (zentimetro gutxietara). Orduan aurreko hankak bere kidearen buruaren aurrean izurtuz mugitzen dituzte. Ernalduak izan ondoren, emeek hiru erraunaldi egiten dituzte, errunaldi banatan 8 arrautzatik 9 arrautzara bitartean ezartzen dituzte, 30-40 mm inguruko diametroa dute eta arrautza-oskola malgua daukate.





ELIKADURA: barraskiloak, intsektuak, eta arrainak jaten dituzte. Dirudienez arrei barraskilo txikiak asko gustatzen zaizkie, aitzitik, emeek barraskilo handiagoak nahiago dituzte.

HABITATA: dortoka hau ur garbietako ibaietan eta ur lasaietan gustura bizi da, gainera sakonak ez diren lekuak eta hondo harritsuak nahiago ditu, eta ertzean goroldio ugaria badago, hobe, oharkabekoa izateko.

BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da, bere banaketa-aldeak Georgiako eta Floridako Estatuetako alde txiki bat hartzen ditu. *Graptemys* motaren barruan hamar espezie daude, *Graptemys barboiri*-a espezierik bitxiena izanez ere salmentak, konpainia animaliatzat, eta bere habitaten kutsadurak arriskuan jartzen dute.

ORBAN HORIAK DAUZKAN GRAPTEMIDOA
(Graptemys flavimaculata)



EZAUGARRIAK: orban horiak dauzkan graptemidoaren oskolak plaka berdeak edo marroiak dauzka, ezkata bakoitzean hori koloretako-orbanak dauzka (bere izena hemendik datorkigu). Bazterreko-plaka banak barra beilegi-koloretakoa, erdi biribilaren itxuraz dauka. Bere orno-plakek gandor beltz bat erakusten dute.
Bere plastroia beixa koloretakoa egiten duten plaken suturetan zehar bi banda beltzak ikus daiteke.
Larruak kolorea berdexka du, bere buruan eta gorputzadarretan zehar marra hori asko ikus ditzakegu.
Bere begiaren aurrean daukan marrazki errektangularrak ezaugarri ditu.
Arrak emeak baino txikiagoak dira (arrak 11 cm-ko luzera izatera ailega daitezke, emeak, ordea, 17,5 cm-ko luzera izatera ailega daitezke).



TAMAINA: emeak 14,5 cm-ko luzera izatera irits daitezke. Arrak 11 cm-ko luzera izatera ailega daitezke.
BIOLOGIA: ur gezetako dortoka hau nahiko fidakorra da, izan ere, zentzuzko distantzia batetik bera ondo ikusteko hurbil daiteke.
Bere ugaltze-garaia Udaberrian gertatzen da, Arra emeari hurbiltzen zaio, eta bere aurrean jartzen da (zentimetro gutxitara). Orduan bere aurreko gorputzadarrak, kopulatu baino lehen,behin eta berriro mugitzen dituzte .



Handik aurrera, emeek ibaiaren bazterraren ondoan zulo txiki bat, arrautzak jartzeko, zulatzen dute.



ELIKADURA: moluskuak, intsektuak, eta arrainkumeak jan ohi ditu.
HABITATA: korronte handiko uretan, ur-landaredi ugari dagoen bazterretan eta hondo hondartsuetan edo lohitsuetan bizi da. Landarediak eguzkitan jartzeko eta etsaiez ezkutatzeko balio ditu.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da. Bere banaketa-aldeak Pascagoula Ibaia eta Mississippi ibaia osatzen ditu.
Mississippiko Estatuan espezie hau bertako legetik babestua dago, baina habitatean kutsaduragatik eta harrapaketa ilegalagatik (konpainia-animaliatzat salmentarako) desagertzeko arriskuan dago.

PUNTU BELTZAK DAUZKAN GRAPTEMIDOA
(Graptemys nigrinoda)



EZAUGARRIAK: puntu beltzak dauzkan graptemidoak, bere oskolaren erdiko ertzetik ateratzen diren orno-ezkatek, eskrezentzi beltzak (arantza lodi inklinaturik bezala) dituzte. Bere kolorea berde iluna edo marroia ia-ia beltzazka da, bere oskolaren ezkata banatan marrazki biribilekin edo erdi biribilekin hori edo laranja-koloretakoak daude.
Bere plastroiaren kolorea horia da, batzuetan tonu gorrixkak edo laranjak ditu.
Bere buruak, lepoak, buztanak eta gorputzadarrek kolorea beltza daukate eta hori-koloreko marra finak banaturik dituzte. Begi bakoitzearen aurrean marra hori hauek “Y” bat egiten dute.
Dortoka-kumeek orno-eskrezentziak oso makurturik dituzte.



Beti arrak emeak baino txikiagoak dira. (Haiek 10 cm-ko luzera izatera irits daitezke, emeak, ordea, 15 cm-ko luzera izatera hel daitezke.
Bi subespezie deskribaru dira: puntu beltzak dauzkan Iparraldeko graptemidoa, eta puntu beltzak dauzkan Hegoaldeko graptemidoa.
Subespezie izenduna puntu beltzak dauzkan Iparralde graptemidoa da (*Graptemys nigrinoda nigrinoda*), Alabama eta Tombigbee ibaietan bizi da bere plastroiaren marrazkia beste espezieena (puntu beltzak dauzkan Hegoaldeko graptemidoa) baino pikardatuagoa da, begiaren aurrean dauzkan marra horiak oso makurturik , eta jarraian daude.
Puntu beltzak dauzkan Hegoaldeko graptemidoa (*Graptemys nigrinoda dentikola*). Alabama-ko Iparamerikar Estatuan, eta Mobile Bay-ko eskualdeko ibaietan dago.
Bere plastroiaren diseinuak bere azalaren %60 baino gehiago bete du. Animalia gehiengoengan bere begiaren aurretik doazen marra horiak sarritan jarraian ez daude



TAMAINA: arrak 10 cm-ko luzera, eta emeak 15 cm-ko luzera izatera irits daitezke.
BIOLOGIA: ur gezetako dortoka den espezie urtarra da. Bere ugaltze-garaia udaberrian gertatzen da. Emeek, ernaldu izan ondoren, ekaina inguruan bizi diren ibaietan ondoan, bere arrautzak jartzeko, putzuak zulatzen dituzte.



ELIKADURA: intsektuak, moluskuak, eta arrain txikiak jan ohi dituzte.
HABITATA: ur-laster lasaigoak dauden lekuetan bizi da, baita landaredia ugaria edo uretako enbor eroriak dauden ibaien bazterretan eta hondo hondartsuetan ere. Sarritan ibaietan agertzen diren landarez uhartetxoen gainean eguzkitan ikus daiteke.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da, bere banaketa-aldea Alabamako Estatuan, Mississippi, Alabama, Tombigbee eta Black Warrior Ibaietan dago.

GRAPTEMIDO OZELODUNA
(Graptemys ocullifera)



EZAUGARRIAK: graptemido ozeladoaren oskolaren ezkata banatan, biribil edo ozelo deigarriak dauzka, hori edo laranja koloretakoak izanez. Dortoka hau berdexka edo marroi argikoloretakoa da hau dela kausa beste graptemidoren artean iaia politena da. Bere bost ornoplaka banatan protuberantzia beltz batzuk dauzkate, hauek oskolatik, arantza makurturik bezala, ateratzen dira.



Bere plastroia hori-laranja koloretakoa da eta bere plaken bilduraren lerroen gainean motibo marroi ilun bat ikus daiteke. Denboraren poderioz, motibo hau pixkanaka-pixkanaka lausotu ohi da.



Bere burua kolore beltza, eta alboetan lerro horiak ditu. Bere begiak horiak dira eta marra ilun batekin zeharkaturik daude. Bere gorputzadarrak ere marroiak dira eta lerro horiekin zeharkaturik daude.

Lepoaren azpian hiru marra luzeak hori-koloretakoa ditu.

TAMAINA: emeak arrak baino handiagoak dira, 22 cm-ko luzera izatera irits daitezke, eta arrak, ordea, 17 edo 18 cm-ko luzera izatera ailega daitezke.

BIOLOGIA: ur gezetako dortoka urtarra da, bere izaera oso beldurtia eta lotsatia da, hau dela kausa oso zaila da bere ondoan jartzea. Eguzkitan, enbor baten gainean edo landare-irlatxoaren gainean ikustea ez da bat ere erraza eta gu-txitan ikus daiteke.



Udaberrian bere araldi-garaia gertatzen da. Estalketak gertatu ondoren, emeek ekainaren inguruan, leku hondartsuetan 9 edo 10 arrautza ezartzen ditu, hauek oso luzangak dira eta 21mm-tik 40 mm-ra bitarteko tamaina dute. Eme bakoitzak batetik eta hirura bitarteko errunaldia egin ohi ditu. Dortoka-kumeak Abuztuaren amaieran elo Irailaren hasierara arte ez dira jaioko.

HABITATA: korronte handiko ibaietan eta hondo hondartsuetan, landaredia ugariarekin bizi ohi da.

ELIKADURA: gehien gustatzen zaizkion moluskuak eta intsektuak dira.

BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da. Bakarrik Pear Ibaiaren arroan, Mississippi Ibaian eta Luisian Ibaian bizi da.

ALABAMAKO GRAPTEMIDOA
(Graptemys pulchra)



EZAUGARRIAK: Alabamako gaptemidoak oskola marroi edo berdexka-koloretakoa du. Pleura-plaka banatan marrazki batzuk hori-koloretakoak dauzka eta bazterreko-plakak marra zuri erdi biribila daukate, Bere lehenengo bizkarreko-plakak horzdun samarrak dira.

Bere plastroia horia da eta ezkata bakoitzearen atzeko ertzean orban beltz bat dago.

Bere burua eta bere motatako taldekideenak (Graptemys) baino luzangagoa da.



Hauek guztiek ondoko lurrak edo gainjarritako lurrak bete ohi dituzte eta batzuetan oso zaila da identifikatzea, izan ere animalia askok aldaketa handiak aurkezten ditu. Espezie honen buruaren kolorea iluna da, bere begien gainean apaintzeko hori koloretako orban bat dago eta bere lepoan eta masailetan zehar doazen hori koloretako-marra batzuk ikus daitezke. Bere gorpuzadarrak eta buztana ilun-koloretakoak dira hori koloretako-lerroekin.



TAMAINA: 21 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du.

BIOLOGIA: espezie urtarra da. Ibaietan agertzen diren landarearen tontorren gainean bizi da eta ez zen berotzen eguzkitan. Bere ugaltze-garaia Udaberrian gertatzen da, baina eskualde batzuetan Azaroan gerta daiteke.

Errunaldia oso luzea da, zeren eta apirilaren eta uztailaren artean izaten baita. Emeek 7 arrautzaren bat ezartzen dituzte, arrautzak luzangak izan ohi dira eta 30 cm-tik 42 cm-ra bitarteko tamaina dute.



Inkubazioak 76 egun irauten du, handik aurrera dortoka-kumeak jaiotzen dira, normalean uztailaren eta urriaren artean gertatu ohi da.

ELIKADURA: moluskuak eta intsektuak jaten ditu batez ere. Ezaugarri da, emeek okil ondo garatua dutela, honi ezker, lurreko eta uretako barraskiloen oskolak ireki ditzakete.

HABITATA: ibaien eta deltetan ur sakonetan eta geldoetan bizi da. Normalean leku hauen hondoak hondartsuak edo legarrak dira eta dortoka honi halako hondoetan lurperatzea gustatzen zaio.

BANAKETA: Ipar Amerikako Endemikoa da. Bere banaketa-aldeak, Alabama-ko Estatua ez ezik, Mexikoko Golko osoa ere ditu (Alabamako Yelow Ibaian, Pearl eta Mississippi Ibaietan, eta Luisianatik ekialdera). Floridako lurralde txiti batetan ere aurki daiteke.

GRAPTERMIDO PSEUDOGEOGRAFIKOA

(Graptemys pseudogeographica)





EZAUGARRIAK: graptemido psedogeografikoaren oskola luzeagoa da zabalagoa baino, bere kolorea marroi edo berdexka da. Pleura-plaka banatan badaude marrazki hori obalaturik eta ilun-koloretako orbanak, honi ezker, mapa edo geografiko-mapa ematen ditu. (hori pentsatu zuen dortoka honekin topatu zuen aurkitzaileak, hau dela kausa bere izen zientifikoa hemendik datorkio).

Bere bazterreko-plaken bazterra oso horzduna da eta bere bizkar-plaketan dagoen protuberantzia gandor txikien antzekoa da oskolaren erdialdean.

Animalia helduengan plastroiaren kolorea horia edo beixa da. Dortoka-kumeek daukaten marra ilun luzea, bizkar -plaken bilduraren lerroetatik zeharkatuz.

Bere buruaren kolorea marroia da halaber,beixa edo zurixka-lerroak ditu eta begiaren azpitik marra hori-koloretakoa du.

Azpi-espezie *Graptemys pseudogeographica kohnii-a*, Hegoaldeko graptemido pseudogeografiko delakoak ezaugarri nagusia dauka: bere buruan eta lepoan banatuta hori koloreko- lerro ugari ditu.

Espezie honek dimorfismo sexuala oso nabaria du. Arrak emeak baino txikiagoak dira oso, (arrak 14 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du, emeak ordea, 27 cm-ko luzera izatera irits daiteke). Arrak aurreko hanketan hiru kako oso luzeak ditu emea hartzeko akoplamendu egiten duten bitartean.

Bi subespezie deskribatu dira: Iparraldeko eta Hegoaldeko Graptemido pseudogeografikoa.

Iparraldeko Grapterido pseudogeografikoa: (*Graptemys pseudogeographica pseudogeographica*). Bere banaketa-aldeko Iparraldean dago. Ezaugarri nagusia du: aurreko hanketan



daukan hirugarren kakoa oso luzea dela.

Hegoaldeko Grapterido pseudogeografikoa (*Graptemys pseudogeographica kohnii*). Bera Iparraldekoa baino txikiagoa da. Emeak 25 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du. Eta Mississippi Ibaiaren haranatik, Illinois erdigunetik, Nebraskako ekialdetik Mexikoko Golkora arte banaturik dago. Bere bizkar-tuberkuluak nabariak eta konbexuak dira oso. (Iparraldeko graptemido pseudogeografikoarenak baino nabariagoak).



Begi bakoitzearen atzetik marra zuri horixka-koloretakoa du, eta bere buruaren zehar lerro hori bat (bere sudurratik begiaren atzera arte) ikus daiteke.

TAMAINA: arrak 15 cm-ko luzera izatera irits daitezke, emeak 27 cm-ko luzera izatera ailega daitezke.

BIOLOGIA: dortoka urtarra da, nahiz eta bere izaera zuhurra izan, asko gustatzen zaio eguerdian, uretako landareen gainean eguzkitan jartzea.

Udaberrian araldi-garaia gertatzen da , nahiz eta batzuetan urte oso beroetan izan, Udazkenean ere akoplamenduak gerta ohi diren.

ernaldurik izan ondoren, maiatzaren eta Ekainaren artean, emeek bi edo hiru errunaldi egiten dituzte. Errunaldi banatan 8 arrautzatik 10 arrautzara bitartean ezartzen dituzte, hori-koloretakoak dira eta 23 mm-tik 34mm-ra inguruko diametroa dute. Inkubazioak 60 edo 70 egunen artean irauten du, baldintza-meteorologikoen arabera.

ELIKADURA: intsektu eta molusku mota asko jaten ditu, baita zapaburuak eta uretako landareak ere.

HABITATA: ibaietako bazterretan ,eta urpean gelditu diren basoetan non landaredia oso ugaria baita bizi da.

BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da .Bere banaketa-aldeak Mississippi Ibaiaren arro osoa, San Croix eta Wisconsin, Luisianara arte,eta Texasko ekialdea ditu.



TEXASKO GRAPTEMIDOA

(Graptemys versa)



EZAUGARRIAK: Texasko graptemidoa dortokaren espezie oso bitxia da. Bere oskola nahiko zapaldua dago, marroi edo berdexka-koloretakoa da.

Bere bizkar-plakek daukaten irtengune batek oskolari gandorraren aspektua ematen dio .

Bere bizkar-plakak konbexu samarrak dira. Bere plastroiaren kolorea horia edo beixa da, marra beltzek bere plaken bilduraren lerroak azpimarratzen dituzte.

Bere burua eta lepoa berdexka koloretakoak dira eta zeharkatuz (bai lepoa, bai burua) hori-koloreko lerro ugari ditu. Haietako bat, begien atzean dagoena bereziki lodia da. Emeak arrak baino handiago samarrak dira, 18 cm-ko luzera izatera irits daitezke arrak, ordea bakarrik 11 cm-ko luzera izatera ailega daitezke.

TAMAINA: arrak 11 cm-ko luzera izatera ailega daitezke, emeak 18 cm-ko luzera izatera irits daitezke.

BIOLOGIA: batez ere eguerdian eta arratsaldean eguzkitan,



beroa sentitzea gustatzen zaion dortoka urtarra da.



Udaberrian bere ugaltze-garaia gertatzen da. Estalketak gertatu ondoren , emeek Udaren hasieran arrautzak ezartzen dituzte. 60-70 egunen bat pasatu ondoren inkubazioa amaituta, dortoka-kumeak jaiotzen dira.

ELIKADURA: intsektuak eta moluskuak jan ohi ditu batez ere.

HABITATA: ur-laster lasaiagoak diren lekuetan eta ez oso sakoneko ibaietan bizi da. Ibaien korronte handiko uretan ikustea oso zaila da.

BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da, bere banaketa-aldeak Texasko Estatua, du. Han Edwars eta Colorado Ibaietan aurki daiteke baita ondoan dauden uraren bideetan ere.

DIAMANTE DORTOKA
(Malaclemys terrapin)



EZAUGARRIAK: dortoka honen oskola leuna eta gutxi konkorturik da, bere plaketan dauden marrazkiek, diamanteen itxura daukate, eta ondo markaturik daude .Bere oskolaren kolorea aldakorra da ,alearen arabera, eta grisa, marroi argia edo beltza izan daiteke.
Bere plastroia, jeneralki, hori-koloretakoa da, puntu ilunez, ia-ia beltzez sakabanaturik. Bere burua eta gorputadarrak zurixka koloretakoak dira eta ilun-koloretako orban ugariak txiki- txikiak dituzte.
Espezie honek dimorfismo sexuala oso nabaria aurkezten du, izan ere, arrak emeak baino txikiagoak dira oso (arrak 14 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du, eta emea 23 cm-ko luzera izatera ailega daiteke). Emeen oskola arrena baina zapalduagoa da, halaber bere burua arrena baino luzeagoa da.
Dortoka-kumeek begi beltz handiak eta nabariak dituzte, haiek helduak baino argiagoak dira.
Bere banaketa-aldea oso handia denez zazpi subespezie deskribatu dira: Iparraldeko
diamante dortoka, Carolinako diamante dortoka, Floridako ekialdeko diamante dortoka, Floridako mendebaldeko diamante dortoka, Mangladiko diamante dortoka, Mississippi-ko diamante dortoka, eta Texaseko diamante dortoka.
Izenaren-espezie Iparraldeko diamante dortoka da (*Malaclemys terrapin terrapin*).
Iparamerikar Kostalde Atlantikoan, Codeko Iurmuturretik Herreraseko lurmuturrera bizi da Bere oskola beltz kororetako uniformearen eta marroi argi-koloretakoaren artean dago, eta bere plastroiaren kolorea laranja da baina grisa-berdexka antzeko koloretakoa du.



Carolinako diamante dortoka, (*Malaclemys terrapin centrata).*
Herreraseko lurmuturretik Hegoaldean egon ohi da. (Iparramerikar Atlantikoko kostaldeko zerrendaren zehar, Floridako Estatura arte dago).
Bere erdipurdiko karena angeluzuzena da eta orno-plaka bakoitzak bere isats-aldean ez dauzka tuberkulurik.
Floridako Ekialdeko diamante dortoka (*Malaclemys terrapin tequesta*). Floridako Iparramerikar Estatuko Atlantiko kostaldean bizi da .Bere oskolaren erdipurdikozkorena oso nabarmena da eta dauzkan bi protuberantzia biribil argien antzekoak dira.
Mangladiko diamante dortoka (*Malaclemys terrapin rhizophorarum*). Bakarrik Florida-ko uharte zingiratsuetan, hondartzen bazterretan dauden mangladietan bizi da. Bere erdipurdikokarena oso nabarmena dago eta bertikal-plaka bakoitza tuberkulu irten samar batean bukatu ohi da. Bere bizkarraldea luzanga samarra da.
Bere plastroia egiten dituzten plaken bilduraren puntuak itzalbeltzak agertzen dira. Gainera, bere lepoaren puntu beltzak loturik, lerro luzeak eginez, agertu ohi dira.



Floridako Mendebaldeko diamante dortoka *(Malaclemys terrapin macrospilota)*. Bere banaketa-aldeak Floridako Estatuko Mendebaldea du, eta Mexikoko Golkoaren kostaldearen zehar, Panhandlera arte hedatu ohi da. Bere erdipurdikozkorenak orno-plaka bakoitzaren aurrean tuberkulu batzuk ditu. Bizkar-plaka bakoitzak bere erdigunean laranja edo hori koloretako-orban bat aurkezten du.
Mississippiko diamante dortoka (*Malaclemys terrapin pileata*). Bere banaketa-aldea hasten da Floridako Mendebaldeko diamante dortokaren banaketa-aldea bukatzen den lekuan. Floridako Panhandletik Luisianako mendebaldera arte egon ohi da.
Bere ezaugarrien artean hauexek dauzkagu: dortoka honek, lepoa, bere aurpegiaren azpialdea eta gorputzadarrak beltz edo marroi ilun koloretakoak ditu.
Bere karenak ere, orno-plaken atzealdeko ertzean tuberkuluak ditu. Bere plastroiaren kolorea horia da.



Texaseko diamante dortoka (Malaclemys terrapin litorali). Luisiana-tik mendebaldera Texaseko mendebaldera arte bizi da, baita Mexikoko Golkoko kostaldearen zehar ere.
Bere plastroia leuna da, bere lepoa, gorputzadarrak eta buruaren goiko aldea gris berdexka koloretakoak, puntu beltzekin dira.
TAMAINA: 23 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du.
BIOLOGIA: habitat zingiratsuak dauzkan dortoka urtarra da. Bere araldi-garaia martxoaren eta maiatzaren artean gertatu ohi da, bizi den lekuaren arabera Emeak uretako azalean flotatzen direnean, arrak hurbiltzen dira eta emeen kloakaren ondoan jarri ohi dira. Arrak emeen gustukoa ba dira eta emeak ez badira joaten , amen batean kopulatzen dituzte.
Errunaldiak apirilean hasten eta azaroaren amaitzen dira, baina dortoka bizi den lekuaren arabera datu hau oso aldakorra izan daiteke bai errunaldiaren datak baita dortoken jaiotzea ere.
Emeek , urtero bi errunaldi egin ohi dituzte, errunaldi banatan 4 arrautzatik 18 arrautzara bitartean ezartzen dituzte. Arrautzen kolorea zuri-arrosa da eta 20 mm-tik 30 mm-ra bitarteko tamaina dute.
Laurogeita hamar egun behar dituzte ekosionatzeko, baina inkubazio luze samarra da bere banaketa-aldeko Iparraldera bizi diren animalientzat.
Dortoka hau harrapatzen dute bere salmentarako konpainia-animaliatzat, sarritan gizakiok dortoka hau bizi den habitatak aztoratu ohi ditugu.
Gatibualdian espezie hauen gaixotasun tipikoak erakusten ditu: larruazal- arazoak, ezkatatzea, eta mikosia ur kloratuagatik edo bitaminarik ezagatik.
ELIKADURA: bere dieta ugaria da , animalia hildak, uretako barraskiloak, padurako landareak jan ohi ditu.
HABITATA: ur-laster lasaiagoak dauden lekuetan bizi da, batez ere itsasaldeko paduretan.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da, bere banaketa-aldea, AEB-ko atlantiar kostaren zehar marra estu batean dago, Codeko Lurmuturretik Mexikoko Golkora arte. Floridako Estatuan ere aurki daiteke.


ALABAMAKO PSEUDEMIDOA
(Pseudemys alabamensis)





EZAUGARRIAK: Alabamako pseudemidoaren oskola luzea, konkortua eta makurtua da, Orno-plaken mailan dago. Bere kolorea berdexka edo beltzezka da. Hamargarren pleura-plakak marra luze zentrala, Y-ren itxurarekin aurkezten du.
Bere plastroia gorri edo laranja koloretakoa da. Oskola egiten duten plaken bilduraren lerroek diseinu beltz bat daukate. Diseinu hau bilduraren lerroetatik ertzetik zeharkatuz dago.
Bere burua tamaina txikiez, berdexka da eta lerro meheak laranja-koloretakoetatik zeharkatuta dago.
TAMAINA: bere oskola 33 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: bere ugaltze-garaia udaberrian gertatzen da. Estalketak bukatzen diren bezain laster, Emeek maiatzaren eta ekainaren artean, errun egiten dute, 3 arrautzatik 6 arrautzara bitartean bere atzeko hankekin zulatzen duten zulotxo batean ezartzen dituzte. Eme bakoitzak errunaldi batzuk egiten ditu, arrautzen inkubazio-denboraldia 60-75 egunen artean dago. Desagertzeko zorian dagoen espezie bitxia da bere habitaten hondamenagatik eta kutsaduragatik, izan ere bizi den inguru-nea oso murriztua da.
ELIKADURA: bere elikadura belarjalea da. Erraboila asko eta uretako belarrak jan ohi ditu.
HABITATA: landaredia oso ugaria den paduretan eta ibaietako ur lasaietan bizi da. Espezie honek ur gazikara samarra jasotzen du.
BANAKETA: AEB-ko endemikoa da. Bere banaketa-alde txikia Mobile Bayko ibaietan (Alabamako Estatuan) geratzen da.

KONZINA PSEUDEMIDOA
(Pseudemys concinna)



EZAUGARRIAK: dortoka honen oskola luzea eta beltzezka-koloretakoa da, marrazki horiekin. Bere plastroiaren horiak duen itzal-marrazkia bere plaken bilduraren lerroetatik zeharkatuz. Bere burua, lepoa, buztana eta gorputzadarrak berde-kolore ilunekoa edo marroiak dira hori edo beixa-koloreko marrekin. Bere buruak, erdipurdiko tamaina du, bere sudur nabarmena eta zorrotza da.

Lau subespezie deskribatu dira:

Ekialdeko Konzina Pseudemidoa *(Pseudemys concinna concinna)*. Virginiako Estatutik Alabamara arte bizi da. Beheko barailaren erdian daukan marra horia Y-ren itxura du.



Hyerogglyfika Pseudemidoa. (*Pseudemys concinna hieroglyphica*). Mississippiko haranaren tontorretik Illinoiseko Hegoaldera ra arte, eta Missouritik Tennessera, Alabamara, Kansasera, eta Texasera arte bizi da. Bere ezaugarrien artean garrantzitsuena hau da: hamargarren pleura-plakaren gainean marka argiak C-ren itxurarekin dauzka eta bere plastroian dauden marrazkiak oso nabarmenak dira.

Metterrko Pseudemidoa (*Pseudemys concinna metteri)*.

Suwaneeko Pseudemidoa (*Pseudemys concinna suwanniensis*). Aurreko hanketan marra argi luzeak eta buztana oso luzea ditu ezaugarri.

Ale melanikoak (zeharo beltzak) oso ugariak dira.

TAMAINA: bere oskola 40 cm-ko luzera izatera irits daiteke.

BIOLOGIA: espezie zuhurra eta lotsatia da oso. Eguzkia hartzeko uretatik ateratzen den gutxitan, aitzitik, ur azalean eguzkitan jarri ohi da.



Sarritan, bere familiako beste espezieekin partekatzen dituen habitatetan aurkitzen da (*Trachemnys, Graptemys, Deirochelys)*.



Estalketak Udaberrian gertatzen dira. Arrak emeei deitzen diete, horretarako bere aurpegiarekin eta lepoarekin emeak ukitu egiten dituzte kopulatzen lortu arte.

maiatzean eta ekainean inguruan, emeek 19 arrautzaren bat bere atzeko hankekin lurrazal hondartsuetan zulatzen dituzten putzuetan ezartzen dituzte. Dortoka-kume jaioberrien kolorazio deigarri eta biziagoa da oso.

Espezie hau konpainia-animaliatzat harrapaturik izan da, hau dela kausa, bere populazio batzuk nahiko murrizturik izan dira.

Beste aldetik, espezie honen animalia asko Europan eta Asian (Singapur) saldurik izan dira, herriko ibaietan solte utzi dituzte eta egokitu ondoren ugaltzen dira eta bertako faunari kalte handia sortu diote.

Gaur egun pseudemido hau bere jatorriko herrialdean (AEB) gero eta eskasagoa da, eta aitzitik, herrialdean non ez da sortailerik populazio asko egin dituen.

ELIKADURA: dortokakumeek bereziki, dieta haragijalea dute: barraskiloak, intsektuak, eta arrain txikiak jaten dituzte, Helduek ordea, belarjaleagoak dira eta bere dieta alga asko, eta uretako landareak erabiltzen dituzte.

HABITATA: dortoka urtarra hau oso emaritsurik ez diren ibaietan, eta ur-landaredi ugari dagoen lekuetan , bizi da. Itsasoaren ondoan dauden paduretan aurki daiteke.

BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da, bere banaketa-aldeak Mexikoko Iparraldeko kostaldeko lautadak, Virginia, Illinois, Missouri, Kansaseko Hego-ekialdea, Oklahoma, Mississippiko eskualdea, Texas, Mexiko Berria, Coahuila, Leon Berria, eta Tamaulipas osatzen ditu.



ESPAINIARRAREN TRATXEMIDOA
(Trachemys decorata)



EZAUGARRIAK: Espainiarraren tratxemidoaren oskola konkortu samarra da, eta bere erdialdean gandor fina du. Bere plaka guztiak leunak eta marroi grisaxka koloretakoak dira. Pleura-ezkatak ozeloak dituzte eta bereplastroia horixka edo beixa koloretakoa da, itzal-biribilak oso markaturik dituzte.

Bere buruak erdipurdiko tamaina du eta sudurra oso zorrotza da.

Bere buruaren, lepoaren, buztanaren, eta gorputzadarraren kolorea grizaxka da, hori-koloreko lerro ugariekin beltzez inguraturik. Bere buruaren azpian dauden marra horiak, alboetan dauzkanak baino finagoak dira.

Dortoka-kumeen koloreak deigarriagoak dira.

TAMAINA: bere oskola 30 cm-ko luzera izatera irits daiteke.

BIOLOGIA: espezie honetako akoplamenduak urte osoan zehar gertatzen dira. Kopulatu baino lehen, arrek bere atzeko hankak emearen aurrean izurtzen dituzte. Emeek, ernaldurik izan ondoren, leku hondartsuetan putxu bat zulatzen dute eta Apirilaren eta Uztailaren artean lau erranaldi ezartzen dituzte. Normalean 8 arrautzetik 18 arrautzara bitartean ezarri ohi dituzte. Arrautzak luzangak dira, eta 23 cm-tik 40 cm-ra bitarteko tamaina dute. Bere inkubazio-garaia 61-70 egunen artean dago.



ELIKADURA: nahiz eta dortoka-kumeen dieta haragijalea izan: uretako intsektuak, eta arrainkumeak, helduak, ordea, belarjale bihurtzen dira: algak eta uretako landareak jaten dituzte batez ere.

HABITATA: ur gezetako dortoka hau landaretza ugaria dagoen urmaeletan bizi da, dena den, ur gazikarako mangladietan ere aurki daiteke.

BANAKETA: *"La Española"* Karibeko Uhartea endemikoa da. Dortoka hau bakarrik Haitín, eta Republica Dominicanan bizi da. Hantxe Neibako lautadatik zeharkatzen duten ibaietan aurki daiteke, baita Tiburoneko Penintsulako mangladietan eta paduretan, Haitín ere.

FLORIDAKO PSEUDEMIDOA
(Pseudemys floridiana)







EZAUGARRIAK: Floridako pseudemidoaren oskola oso okertua, luzea eta horia koloretakoa da, marrazki beltzak asko ditu eta bere hamargarren pleura-plakan marra luze argi koloretakoa darama.
Bere plastroia horia da eta bere burua txikia. Bere larruaren kolorea marroia edo beltza da marra horiekin. Bere lepoan eta aurpegian zehar lerro luze horiak zeharkatuz
Dortoka-kumeak helduak baino argiagoak dira.
Bi subespezie desbribatu dira: Ipar Floridako pseudemidoa eta Pseudemido penintsularra.
Ipar Floridako Pseudemidoa (*Pseudemys floridiana floridiana*). Bere banaketa-aldea handiena da, izan ere bi azpi-espezien artean bera da Floridako Iparamerikar Estatu osoan dagoena.
Bere buruan zehar marra horiak oso nabarmenak daude.
Pseudemido penintsularra (*Pseudemys floridiana peninsularis*). Bakarrik Floridako Estatuan bizi da. Bere buruaren azpitik dauden marra-saila argiak osatugabeak edo mozturik egon daitezke. Espezie honek es dauka dimorfismo sexuala oso markaturik, emeak arrak antzekoak dira (emeak handi samarrak).
TAMAINA: bere oskola 40 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: espezie oso taldekoia da. Sarritan hogei ale ikus daiteke eguzkitan, zuhaitzaren enborraren gainean, haiek guztiak noranzko berberari begira jartzen diote.
Floridan bizi den aleek urte osoan zehar ugaltzen dute. Aitzitik, bere banaketa-aldetik Iparraldean dauden aleek (Ipar Carolina) bakarrik Udaberrian estaltzen dute.
Eztei-geldialdian zehar arrek emeen azpitik eta bere atzetik ere, igeri egiten dute, arrek bere hankak kideen buruen azpitik dar-dar eginarazi ohi dituzte estalketa lortu arte.
Floridan bizi diren populazioek urte osoan zehar arrautzak ezartzen dituzten bitartean, Iparralderantz bizi direnek maiatzaren eta ekainaren artean ezartzen dituzte.
Bere arrautzak zuriak eta eliptiko samarrak dira, bere tamaina 24 cm-tik 35 cm-ra bitartean neurtzen dute. Populazioaren arabera 70- 100 egunen artean eklosionatzeko behar dituzte.
Nahiz eta dortoka asko konpainia animaliatzat salmentarako harrapatu, erreserbetan, eta parke babestuetan bizi diren populazio asko dira. Leku hauen helburua babestutako espezie hau (oraindik ugaria) bizirik irautea da.
ELIKADURA: bere elikadura batez ere belarjalea da. Uretako landare mota asko jan ohi du. Berez, gatibualdian akuarioko landare guztiak jan ohi ditu. Ordea dortoka-kumeak haragijaleak dira eta bere dietaren barruan intsektuak eta moluskuak ikus daiteke.
HABITATA: ur-laster lasaiagoak dauden ibaietan bizi da, non hondo hondartsuak eta lohitsuak baitaude..
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da. Bere banaketa-aldeak, Atlantikoko kostaldeko lautadak, Floridatik Ipar Carrolinara arte osatzen ditu.



NELSONEN PSEUDEMIDOA
(Pseudemys nelsoni)






EZAUGARRIAK: Nelsonen pseudemidoaren oskola konkortua, luzea eta beltza koloretakoa da, bere pleura-plaka eta bazterreko-plaken gainean marra gorri edo hori-laranja batzuk dauzka.
Pleura-plaka banak goiko aldearen gainean marra gorrizka sabelaldekoan du.
Bere hamargarren pleura-plakak marra zentrala ditu, sarritan *"Y"* bat egiten duela.
Bere plastroiaren kolorea gorri-laranja da, batzuetan orban zentrala batekin, denboraren poderioz galtzen dela. Ale melanikoak (zeharo bel-tzak) bai emeengan bai arrengan ikusi dira.
Dortoka honen buruak neurrizko tamaina du, eta beltza koloretakoa marra horiekin da, baita bere gorputzadarrak eta buztana ere.
Dortoka-kumeak helduak baino argiagoak eta biribilduagoak dira, eta bere plastroiaren kolorea gorrixka edo laranja da.
TAMAINA: bere oskola 34 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: espezie fidakorra da oso, izan ere eguzkitan dagoenean bere ondoan hurbil daiteke.
Bere ugalketa urte osoan zehar gertatzen da. Emeek urtero bi arrautza baino gehiago ezarri ohi dituzte, 12 arrautzara arte jar ditzakete. Ikusten da errunaldirako aligatoreen habiak nahiago dituztela, izan ere habia hauek landare-materialez deskonposizioan eginak daude. Inkubazioaren iraupenak 60- 75 egunen bat artean dirau.
ELIKADURA: bere elikadura belarjalea da batez ere, baina dortoka-kumeen elikadura haragijalea da. Dena den dortoka heldua batzuek animalia txiki hildak, arrainak eta intsektuak balioztatu dituzte.
HABITATA: mangladietan, lakuetan, urmaeltean, paduretan eta korronte geldoko ibaietan bizi da.
BANAKETA: Ipar Amerika-ko endemikoa da, bere banaketa-aldeak Floridako Penintsula osoa, Georgia-ko iparramerikar Estatutik hegoaldea osatzen ditu.
Pseudemidoen artean hau da, konpainia animaliatzat salmentarako oso gutxitan harrapatzen dutena.







SABEL GORRIA DAUKAN PSEUDEMIDOA

(Pseudemys rubiventris)





EZAUGARRIAK: sabel gorria daukan pseudemidoaren plastroia (oskolaren beheko aldean) gorria edo laranja koloretakoa da, bere plaken bilduraren artean orban ilun bat ikus daiteke.

Bere oskola, pleura eta bazterreko- plaketan beltza koloretakoa gorriak edo horiak koloreko orbanekin, konkortua da, eta bere erdialdean puntu altuena dauka.

Bere bigarren pleura-plakak marra zentral argia ditu, eta bazterreko-plaka bakoitzak aurrealdean gorria- koloreko orban bat aurkezten du.

Espezie honetan, askotan melanismoaren kasuak (animaliak zeharo beltza- koloretakoak) ikus daiteke, animalia zaharren artean batez ere.

Bere burua erdipurdiko tamaina, eta sudurra nabarmen samarra da.

Bekokiaren aurrean espezie honen marrazki berezi bat ikus daiteke: puntu argi bat geziaren itxuraz.

Bere buruaren kolorea berdexka da eta 5-tik 8-ra bitarteko lerro horietatik zeharkaturik dago.



Dortoka-kumeen koloreak biziagoak dituzte eta bere plastroia arrosa edo gorria koloretakoak, itzal motiboz apaindurik dira.

TAMAINA: bere oskola 40 cm-ko luzera izatera irits daiteke.

BIOLOGIA: bere motatako beste espezie ez bezala, dortoka hau oso mesfidatia da eta bere ondoan hurbiltzea oso zaila da.

Bere ugalketa bere natur-inguruneanoso gutxi ikusita izan da.

Estalketak gertatu ondoren, Emeek maiatzaren amaieran eta uztailaren artean 10 arrautzatik 17 arrautza eliptikoera bitartean ezartzen dituzte. Arrautzek 32 cm-ko diametroa dute gutxi gora-behera . Eme bakoitzak bat edo bi errunaldi egin ohi ditu, 70 egunetik 100 egunetara behar dituzte eklosionatzeko. Dortoka-kume txikiak, beranduxeago bezala, Irailaren amaieran jaiotzen dira.

HABITATA: mangladietan, aintziretan, paduretan bizi da eta lekuetan non sartzea oso zaila baita.

ELIKADURA: bere elikadura orojalea da: barraskiloak, krustazeoak, eta uretako landareak jaten ditu batez ere.

BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da. Bere banaketa-aldeak bakarrik New Jerseyko Estatuko erdialdera, Ipar Carolinara arte, eta Potomac Ibaia Virginiaren ekialdera arte, ditu.

Sabel gorria daukan pseudemidoa, bildumagileengandik oso balioztatua den dortoka bat da. Dena den dortoka honekin merkatu intentsiborik ez dute egiten. Bere habitatean sartzea oso zaila da, eta edozein keinadura ikusten duen bezain laster, urazpian sartzen da, hau dela kausa oso zaila da dortoka hau harrapatzea.

KUBAKO TRATXEMIDOA

(Trachemys decussata)





EZAUGARRIAK: Kubako tratxemidoa edo dortoka kubatarraren oskolaren koloreak marroia, marrazkirik gabe, du. Atzeko bazterreko plakak horzdun zamarrak dira.

Bere plastrioa hori koloretakoa da, eta bere plaken bilduraren lerroen gainean izugarrizko motibo beltz batez apaindurik dago.

Bere buruak erdipurdiko tamaina du eta bere muturra ez da oso nabarmenik.

Bere larruaren kolorea berdea, edo marroi-berdexka da, hori-koloreko lerroekin.

Bi lerro argiak bere begietatik lepoaren muturrara arte markaturik agertzen dira.

Arrak oso ilun bihurtu daitezke eta bere oslola emeenak baino zapalduagoak dira. Bi subespezie deskribatu dira:

Trachemys decussata. Kubako Ekialdean dago. Bere oskolak luze eta obalatua du ezaugarri.

Trachemys decussata angusta. Kubatik mendebaldera, Caimán Irletan eta Pinudien Irletan bizi da. Berak bere larruaren kolorea beltza edo grisaxka du ezaugarri.

TAMAINA: bere oskola 39 cm-ko luzera izatera irits daiteke.

BIOLOGIA: bere ugaltzea, egoera-basatian, momentuz ia-ia ez dago ikasita. Badakigu, arrak, eztei-geldialdia egiten duen bitartean, emearekin kopulatu baino lehen, bere aurreko gorputzadarrarekin emearen buruaren aurrean mugimendu izurturik egiten ditu. Emeek, apiriletik uztailera arte bere arrautzak ezartzen dituzte.

ELIKADURA: intsektuak, moluskuak, arrainak, eta uretako landareak jan ohi ditu.

HABITATA: ibaietako ur-istingadietan, zingiretan eta ur-landaredi ugari dagoen lekuetan bizi da.

BANAKETA: Kubako eta bere ondoko uharteetako endemikoa da, bere banaketa-aldeak bakarrik, Kubako Uhartea, Pinudien Uhartea, Gran Caiman, eta Cayman Brac, osatzen ditu.

DORBINGIREN TRATXEMIDOA

(Trachemys dorbigni)





EZAUGARRIAK: dortoka honen oskola (emeak batez ere) oso konkortua eta nabar edo berdexka koloretakoa da. Plaka banatan orban horiak, laranjak edo gorriak ditu. Marka horiek beltz koloretakoez inguraturik agertzen dira eta aleen arabera itxura desberdinak dituzte. Marka banak marra bertikala argia du.

Dortoka-kumeek bere oskolaren erdialdean karena beltz bat oso nabarmena dute. Karena hau zahartzen diren neurrian lausotzen doa.

Bere plastroiaren kolorea horia edo laranja itzal-marrazki batekin da. Bere buruak erdipurdiko tamaina eta sudur zorrotza du. Marra horiak edo laranjak beltzez inguraturik, aurpegitik eta lepotik zeharkatzen dira. Bi subespezie deskribatu dira: *Trachemys dorbigni dorbingi*: Argentina-n eta Uruguay-en bizi da. Bere oskolaren kolorea marroia da eta plastroi laranja du. Bere larruaren lerroak ere laranjak dira.

Trachemys dorbigni brasilensis: Brasilen, Guaiba Ibaitik Grande do Soul Ibaiera eta Maranhao Ibaiera (Herriko Iparraldean) bizi da. Bere oskolaren kolorea berdexka hori-gorri edo arrosa-kolorekoa da (marrekin), eta plastroia hori-berdexka da.

TAMAINA: bere oskola 26 cm-ko luzera izatera irits daiteke.

BIOLOGIA: uretako dortoka honen ugalketa urtearen edozein garaian gerta daiteke. Emeek 17 arrautza luzera arte ezartzen dituzte, 27cm-tik 40 cm-ra bitarteko tamaina dute.

Espezie hau intesiboki harrapaturik izan da: bere salmentarako konpainia animaliatzat bezala, hiriburuen ondoan zeudenak bizi zen eskualdeetan batez ere, baina bere banaketa-aldea nahiko handia denez, espezie hau desagertzeko zorian ez dagoela berma daiteke.

ELIKADURA: espezie hau orojalea da eta hau dela kausa, uretako landareak, algak, intsektuak eta krustazeoak jan ohi ditu.

HABITATA: ibaietan eta paduretan, non uretako landaredia ugaria baita, bizi da.

BANAKETA: bere banaketa-aldeak Brasil (So Luis, Maranhao, Grande do Soul Ibaia, Guaiba Ibaia), Uruguay (Parana), eta Argentinako Iparraldea osatzen ditu.

GIGOTEA DOTOREA
(Trachemys scripta)





EZAUGARRIAK: gigotea dotorearen oskola nabar kolore ilunekoa, urkilatu zamarra eta obal itxuraz da, zehar-orban batzuekin eta helduen kasuan erretikulatu horixka dute, aitzitik, dortoka-kumeen oskola berdexka-koloretakoa da.
Burua, lepoa eta gorputzadarrak oliba-koloretakoak dira, gainera ildaska hori deigarriak dituzte ertz ilunekin .Buruaren alde bietan marra gorria , laranja edo horia oso nabarmena du. Bere larru berdexkak marra horiak ditu.
Bular-oskola nahiko zabala da eta jeneralki kolorazio horixka zenbait ñabardura ilunekin.
Tachemysaren generoan sartuta eta bere ahizpekin konparatuz (*Pseudemys*-en generoenak) dortoka hau besteak baino oldarkorragoa eta haragijaleagoa da.
Hamasei subespezie deskribatu dira, hauexek dira:
Trachemys scripta scripta: Virginiako Hego-mendebaldean Ipar Floridara arte bizi da. 27 cm-ko luzera izatera irits daiteke. Bere plastroia, aurreko ezkatetan, ozeloekin apainduta dago.
Trachemys scripta callirostris: Cariben, Colombian eta Venezuelan bizi da. 25 cm-ko luzera izatera irits daiteke. Bere plastroia marra ilunez estalita dago (ia-ia plastroia osoa).
Trachemys scripta catapsila: Mexikoko kostaldeko lautadetan bizi da. 22 cm-ko luzera izatera ailega daiteke. Bere marra supratenporala horia oso luzea da.
Trachemys scripta chchiriviche: Venezuelako Iparraldetik (Tocuyo eta Moron Ibaietan) bizi da. 32 cm-ko luzera izatera irits daiteke. Kokotsaren gainean ozeloak eta marra supratenporala gorria ditu ezaugarria.
Trachemys scripta elegans: Mississippiko Haranan, Illinoisen, Mexikoko Golkora arte bizi da. 28 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
Badago luze-marra gorri bat begiaren atzeko bazterretik lepoaren amaierara arte, joaten dena. Plastroiaren marrazkiak ere, ezkata banatan ozelo bat dauka.
Trachemys scripta emolli: Costa Ricanen eta Nikaraguan bizi da.
Trachemys scripta gaigeae: Texasen eta Mexiko Berrian bizi da. 22 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
Trachemys scripta grayi: Mexikoko kostaldeko lautadan, Pazifikoko kostaldean, Guatemalako Hego-mendebaldera arte bizi da. 60 cm-ko luzera irits daiteke. Bere pleura eta urbazterreko-ezkaten gainean ozelo ilunak ditu. Bere plastroiaren marrazkia zehaztugabekoa da.
Trachemys scripta hartwegi: Mexikoko





Nazas Ibaietan bizi da.
Trachemys scripta hiltoni: Mexikoko Fuerte Ibaian bizi da. 28 cm-ko luzera izatera ailega daiteke. Bere plastroian itzal- bibiribil zentral bat du ezaugarria.
Trachemys scripta nebulosa: Californiako Hegoaldetik bizi da. 37 cm-ko luzera izaera irits daiteke. Bere marra supratenporala laranja edo horia begien gainean obalatu itxuraz bukatzen da.
Trachemys scripta ornata: Mexikoko Pazifikoko kostaldeko lautadan, Colombiara arte bizi da. 38 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
Trachemys scripta taylori: Cohhuilako Mexitar Probintzian, eta 22 cm-ko luzera izatera irits daiteke. Marra posorbitaria gorria oso luzea du ezaugarria, bestalde, bere oskolaren gainean itzal-puntu txikiak ditu.
Trachemys scripta troostii: Kentuckyko Iparramerikar Estatuko Hego-mendebaldetik eta Alabamako Ipar-mendebaldetik bizi da. 21 cm-ko luzera izatera irits daiteke. Begi bakoitzaren atzetik marra hori batzuk ditu.
Trachemys scripta venusta: Veracruzetik (Mexiko) Panamara arte bizi da 48 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
Trachemys scripta yaquia: Sonoran (Mexiko) bizi da. 31 cm-ko luzera izatera irits daiteke. Bere ezaugarria garrantzitsuena da: orban post-orbital bat hori-laranja koloretakoa, gutxi hedaturik, duela.
TAMAINA: bere oskola , espezien arabera 20 cm-tik 60 cm-ra bitarteko neur daiteke.
BIOLOGIA: dortoka hau, urmaeletako urbazterren hondo lohitsuetara sarri joan ohi da non landaredi ugariez inguraturik dauden.
Bere ekintzaren denboraldia egunekoa da, egunaren parte handi bat, harrien gainean edo ur-gaineko landaretan eguzkitan geratzen da.
Estalketak apirilaren eta uztailaren artean gertatzen dira. Emeak 15 arrautza oboideren bat lurrean zulaturik dauden habietan ezartzen ditu. Inkubazioak 70 egun irauten du Handik aurrera dortoka txikiak jaiotzen dira, haien koloreak oso bizigoak dira.
Nahiz eta espezie hau bere natur-ingurunean mehatxaturik ez egon, animalien bilketa ugariak bere bidalketarako Europako eta Asiako merkatuetara adigarriki aspaldiko populazioak gutxitzen du. Baina Eropako eta Asiako leku hezeetan arriskugarriak badira, sartuta eta gero, herriko faunarentzat (bai narrastientzat bai arrainentzat) benetako mehatza dira, izan ere oso moldagarriak dira eta bere garapena oso erraza da.
ELIKADURA: dortoka-kumeak haragijaleak dira. Zapaburuak, eta krustazeoak jaten dituzte, helduak, ordea orojale bihurtzen dira eta bere dietan landare mota asko jaten
dituzte.
HABITATA: paduretan, urmaeletan, aintziretan eta ibaien bide geldoetan bizi da.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak AEB-ko erdialdea, Hego AEB, eta Ertamerika, Mexiko, eta Venezuelako Iparraldea, osatzen ditu.







STEJNEGERREN TRATXEMIDOA
(Trachemys stejnegeri)



EZAUGARRIAK: stejnegerren tretxemidoaren oskola konkortu samarra, marroia edo grisaxka koloretakoa eta batzuetan berdexka edo beltza da.
Dortoka-kumeek bere pleura, orno, eta bazterreko- plaketan orban horiak dituzte, haiek heldutasunera ailegatzen diren neurria lausotzen hasi dira. Batzuetan ale zaharrak, zeharo beltzak, aurkitzen dira.
Bere plastroiaren kolorea hori orbangabekoa da eta bere burua grisa edo berdexka da. Begien, sudurraren, eta behekо barailaren atzetik lerro argi batzuk jaiotzen dira, eta aurpegian eta barailan zehar hedatzen dira.
Hiru subespezie desbribatu dira:
Trachemis stejnegeri stejnegeri: Puerto Ricon, Guadalupeko eta Marie-Galante Uhartea Karibetarretan bizi da. Bere larrua iluna edo berdexka da eta mutur luze eta zorrotza du.
Trachemys stejnegeri vicina: La Española-ko Uharteko hegoaldean bakarrik bizi da. Berak larruaren kolorea grisa-berdexka eta plaka banatan ozeloak ditu, baina hau ez da gertatzen ale guztietan.
Trachemys stejnegeri malonei: Bahamaseko Uhartean (Great Inagua Island) bizi da. Bere oskola konkortua da oso, eta bere muturra oso biribildua da. Bere plastroia, sarritan, hori koloretakoa da eta plaken bildura banatan itzal-marraztki bat du.



TAMAINA: bere oskola 24 cm-ko luzera izatera ailega daiteke.
BIOLOGIA: ur gezetako dortoka honen estalketak Udaberriaren hasieran eta emeek bere errunaldiak (hiru errunaldira arte) apirilaren eta uztailaren arte ezartzen dituzte.
Errunaldi banatan, 3 arrautzatik 14 arrautzara bitartean ezar ditzakete.Arrautza eliptiko hauek bere atzeko hankekin zulatzen duten putxu batean, jarri ohi dituzte, arrautzak 26 mm-tik 43 mm-ra bitarteko tamaina ditu.
Dortoka jaioberrien kolorea eta helduena berdina da, baina bere orno-karenak nabarmenagoak dira.
ELIKADURA: Nahiz eta dortoka-kumeak haragijaleak izan: intsektuak, moluskuak, eta arrainkumeak jaten dituzte, Helduak, ordea, belarjaleak dira. Algak, eta uretako landareak jaten dituzte batez ere.
HABITATA: ur laster geldoetan, non uretako landaredia ugaria baita, bizi da.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak Bahamas-eko Uharteak (Great Inagua), Puerto Rico eta La Española osatzen ditu. Guadalupeko eta Marie-Galante Antilak Frantziarretan ere dago.

OSKOL BIGUNAREN DORTOKAK (TRIONICHYDADE FAMILIA)



Familia honek 22 espezie, 6 generoren sarturik, ditu. Haiek guztiak urtarrak dira eta alderdi epeletatik eta tropikaletatik banaturik daude: Ipar Amerikan, Afrikan, Asian, eta Indoaustraliako Artxipelagoetan, hain zuzen ere.
Bere luzera, oskol bigunaren dortoka punteaketaren 30 cm-tik eta buru estuaren dortokaren 115 cm-ra bitarteko tamaina ibiltzen da.
Hauek guztiak oskolaren gainean tonu nabarrak, oliba edo grisa dituzte, batzuek marka zuriekin, horiekin edo laranjekin , eta atzetik tonu zuria, horia edo grisa dituzte.
Bere oskola zapaldua eta murriztua da eta ez ditu gure hezur periferikorik (oskol bigunaren dortoka punteaketaren kasuan izan ezik). Gainera ezkutuz estalita egon ordez larru zail batez estalita dago. Bere lepoa luzanga eta erretraktila, eta bere muturra proboszide luzea da.
Nahiz eta espezie batzuek bere dieta orojalea izan, bere dieta haragijalea da.

NILOKO TRIONIXA
Trionyx triunguis



EZAUGARRIAK: Niloko trionixaren oskola obalada, berde-kolore ilunekoa edo marroi koloretakoa da, ez dauka markarik bereizteko. Trionixakumeek orban argiak luzera-lerroak elkarturik badauzkate eta tuberkulu txikiak, adinaren poderioz desagertzen direnak.
Bere plastroiaren kolorea zuria edo beixa da. Ale batzuek aurreko aldean itzal marrazkiak aurkezten dituzte.
Bere burua, bere tamainarekin konparatuz, txikia da eta sudurra luzea da oso.
TAMAINA: espezie handia da, 95 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du.
BIOLOGIA: espezie honek estuarioetako ur gazikara ondo onartzen du, berez Gabon Ibaiko estuarioan sarritan aurkitzen da, eta populazio handi bat Turkiako Hegoaldeko kostaldean bizi da, ur sakonetan non gazitasuna oso altua baita (38-a bider mila).



Kostaldeetako populazioen ugalketa eta itsasoko dortokarena oso antzekoa da, izan ere dortoka berdea erabiltzen den hondartza berberak arrautzak ezartzeko erabiltzen dituzte.
Espezie zeharo urtarra da, baina sarritan ur-azalera igotzen edo ertzera hurbiltzen da eguzkitan berotzeko.
Dortoka hau, bere larruaren bidez, uretatik oxigenoa ateratzeko gai da. Hau dela kausa ur azpian denbora luzea, mugitu gabe, ur-azalera arnasa hartzera joan gabe egoteko gai da.
Emeek apirilaren eta uztailaren artean bere arrautzak kostaldeko hondartzetan edo ibaietako ertz hondartsuetan ezartzen dituzte. Eme handiek 100 arrautza esferikora arte ezar ditzakete, arrautza banak 32 mm-ko diametroa du.



Jaiotzean, dortoka-kumeek bakarrik 30mm-ko tamaina dute.
Gizakiek orain dela milurtekoak espezie hau ezagutzen dute eta Egiptoko hilobi askotan irudikatuta dago. Animalia honen baxuerliebe bat Pariseko Louvreko Museoan dago ikusgai.
HABITATA: espezie honi, uraren bide geldoetan bizitzea gustatzen zaio, halaber, aintzirak, hondo eta ertz hondartsuak edo lohitsuak dituzten urmael handiak gustatzen zaizkio.



ELIKADURA: bere elikadura orojalea ez ezik, ugaria ere da. Krustazeoen larbak, intsektuak, moluskuak, narrastiak, edozein fruta uretara eroria eta haratustela jaten ditu.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak ia-ia Afrika osoa, Hegoaldea eta Ipar ekialdea izan ezik, Israeleko Kostaldeak, Líbano, Siria, eta Turkia osatzen ditu.
Afrikan, Nilo Urdinan, Ugandan, Alberto Aintziran, eta Rodolfo Aintziran (baina Victoria Aintziran ez), Egipton, Sudánan, Etiopían, Somalian, Kenian, Angolan, Zairen, Gabónen, Kamerúnen, Togon, Ghanan, Liberian, Sierra Leonan, Gambian, Senegalen, eta Guinea Bissaun ere aurki daiteke.
Nahiz eta bere kontsumo oso handia izan, oraindik bere banaketa-alde osoan ugaria da.

TRIONIX KARTILAGINOSOA

Amyda cartilaginea





EZAUGARRIAK: trionix kartilaginosoa, Asiako trionixa ere deiturik, oskol leun eta obalatua du, bere kolorea, berdea edo marroi iluna da hori puntu askorekin beltzez inguraturik, batez ere dortoka-kumeen kasuan .

Sarritan helduen oskola berde-oliba uniforme koloretakoa dute, dortoka-kumeek, aitzitik, lerro asko eta tuberkulu txikiak dituzte, baina hau guztia adinaren poderioz desagertzen doa, oskola leuna lortu arte.

Arren kasuan, oskola zuria da eta emeena beixa da.

Burua, lepoa, eta hankak berdeak dira, eta hori, laranja edo arrosa puntu askorekin aurpegiaren albo banatan ditu.

Tailandiako subespeziearen oskolak oso biribildua ditu tuberkulu askorekin (*Amyda cartilaginea nakornsritham-marajensis).*

TAMAINA: espezie handia da eta 70 cm-ko luzera izatera irits daiteke.

BIOLOGIA: emeek leku hondartsuetan bere arrautzak ezartzen dituzte. Normalean errunaldi bakoitzean 6 arrautzatik 10 arrautzara bitartean ezarri ohi dituzte, dena den 100 arrautzara ailega daitezke. Eme bakoitzak urtero errunaldi batzuk lortzen ditu.

Arrautzak esferikoak dira eta 28 mm bateko diametroa dituzte gutxi gora-behera.

Dortokakumeek 135 eta 140 egunen artean jaiotzako behar dituzte, eta arrautza-oskolatik ateratzen direnean kolore distiratsuak, hori puntu ikusgarriekin, eta plastroia zuria grisa samarra da. Bere burua berde iluna da hori puntu txikiez sakabanatua.



1987. urtean Chao Phraya Ibaietan (Bangkoken Iparraldean) aurkitu zuen dortokak 202 kiloko pisua zuen, aurkitu zen eskualdean desagertuta zegoela pentsatzen zen. Nakhou-Pathoneko tenplu budistara dortoka hau eraman zuten.

HABITATA: habitat askotan bizi da, adibidez: ibaietako gune lasaienetan, kostaldeko paduretan, ur-gelditutako lakuetan.

ELIKADURA: espezie haragijalea da eta gau-ohiturak ditu. Arrainak, krustazeoak, narrastiak, insektuak, eta bere larbak harrapatu ohi ditu.





BANAKETA: bere banaketa-aldeak, Birmaniako Hegoaldea, Thailandia, Laoseko Hegoaldea, Kambodia eta Vietnam, Malaysia Penintsulara arte, eta Sumatra, Java eta Borneo Uharteak, osatzen ditu.

TRIONIX ARANTZATSUA

(Apalone spinifera)



EZAUGARRIAK: trionidoen familian sartuta dago. Trionix arantzatua *(Trionix spinifera)* uretako dortokarik ezagunena da, bere oskolan bi tuberkulu arantzatsuak ditu eta handik bere izena datorkio.


Bere oskolan ez ditu korneo-plakarik, hau da bere ezaugarri garrantzitsuena; ematen du oskola larru lodi batetik ertz kartilaginoso batez estalita dagoela.

Bere sorbaldaren aurreko aldea tuberkuluak arantzaren itxuraz ditu. Bere kolorea grisa edo berde-oliba da, iluna-koloreko orban ugari ditu.

Sei subespezie deskribatu dira:

Trionix spinifera spinifera: bere oskolak bi ozelo beltz handiak ditu iluna koloreko bazterreko lerro batekin konbinatua. Bakarrik New Yorken, Wisconsinen, Tennesse Ribere eta New Yerseyn bizi da.





Trionix spinifera aspera: bere bizkarreko atzeko aldeko ertzean, beltzak koloreko lerro paralelo ugari dituzte. Bakarrik Ipar Carolinan eta Floridan bizi da.

Trionix spinifera hartwegi: subespezie honek bere bizkarrean puntu txikiak eta ozelo txiki uniformeak ditu, gainera iluna-koloreko bazterreko marra bat du. Minesotan, Arkansasen, Wyomingen, Coloradon eta Mexiko Berrian bizi da.

Trionix spinifera pallidus: Bere oskola oso argia da. Bere oskolaren atzeko erdialdean zuria koloreko tuberkulu ugari ditu ez daude estalirik ozelo beltzez. Oklahomatik, Louisianatik eta Texasetik banaturik dago.

TAMAINA: kelonido hau ia-ia zeharo urtarra da. Emea bada 47 cm-ko luzera izatera irits daiteke era arraren kasuan 24 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du.

BIOLOGIA: gau-ohiturak dauzkan harraparia da. Egunsentian janarien bila ateratzen da: uretako intsektuak, krustazeoak eta batzuetan arrainak jaten ditu. Geldo-geldoa igeri eginez bere harrapakinaren ondoan jartzen da eta bat batean harrapatzen du bere lepoaren bidez, horretarako luzatu ohi du.

Apoarmatu honen araldi-garaia apirilaren eta maiatzaren artean gertatzen da. Orduan ibaiko hondoan arrek eta emeek kopulak egiten dituzte, hori gertatu ondoren emeak ibaietako eta aintziretako leku hondartsuetara, ertzetan kokaturik, abiatzen dira eta hantxe bere arrantzak ezartzen dituzte. Hauek zuriak eta esferikoak dira. Arrautza oskolak oso apurkorrak dira. Arrautzak 3 cm-ko diametroa neurtzen du.



abuztuaren hasieran, eta batzuetan urriaren amaieran (latitudeen arabera) kumeak jaiotzen dira, bere aspektua eta helduena oso antzekoa da, bai itxuran bai oskolaren koloretan. Trionix arantzatsuaren haragia oso preziatua da, hau dela kausa jazarpen handia eta ehiza jasotzen behar ditu. Ondorioz, bere populazioaren parte handia desagerrarazi du. Gaua igarotzen den lekuetan harrapatzen dira bai sareen bidez baita amuen bidez ere.

Eragozten bazaio krudelki kosk egiten du.

ELIKADURA: uretako intsektuak, krustazeoak eta arrainak jaten ditu.

TRIONIX ARANTZATSU BELTZA
(Apalone ater)





EZAUGARRIAK: aspaldian trionix arantzatsu beltza trionix arantzatsuaren subespezie bat bezala (Alapone spinifera) kontuan hartu zen.
Bere oskolaren kolorea beltza edo grisa iluna da, eta izurtu samarra emeengan batez ere. Oskolaren aurreko ertzean dituen tuberkuluak oso murriztuak dira.
Bere burua luzea da eta sudurra bere generoko beste espezierena baino motzagoa da.
Arrek ez bezala, emeek bere oskolen beheko bazterretan eta bere plastroietan ildaska beltzak dituzte. Arren muturra emeen muturra baino lodiagoa da eta bere kolorea grisa iluna da. Buruaren azpitik ere puntu zuriak dituzte.
TAMAINA: bere oskola 35 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: bere ugalketa ekainaren eta uztailaren artean gertatzen da. Emeek 20 arrautzatik 25 arrautzara bitartean ezartzen dituzte. Arrautzak esferikoak dira eta lurrean zulatzen dituzten putzuetan jarri ohi dituzte. Urrian gutxi gorabehera kumeak jaiotzen dira eta helduen antza daukate.
HABITATA: urmael istingadietan eta ur geldituetan bizi da.
ELIKADURA: Arrainak, krustazeoak, narrastiak, eta intsektuak harrapatzen dituen espezie haragijalea da, gau-ohiturekin.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak,Mexikoko lurralde txiki bat, Cuatro Ciénagaseko eskualdea, (Coahuilan), ditu.
Espezie hau CITES-eko Lehenengo Gehigarrian sartuta dago eta agortzeko zorian dagoela kontuan hartzen dute eta orduan bere harrapaketa debekatuta dago baita bere salerosketa ere.

FLORIDAKO TRIONIXA
(Apalone ferox)



EZAUGARRIAK: Floridako trionixaren oskola gris-kolore ilunekoa edo marroi iluna, itzalorbanekin, ditu. Bere oskolaren ertzean tuberkulu asko ditu.
Bere plastroia zuri edo grisaxka koloretakoa da eta kailuez horniturik dago.
Bere buruak erdipurdiko tamaina du eta bere sudurra oso luzea da. Espeziearen arabera bi lerro hori edo gorriak bere begitik beheko barailara arte zeharkatuz. Arrak emeak baino txikiagoak dira: 29 cm-ko luzera gainditzen ez duten tamaina bat izan ohi du, emeak, ordea, 60 cm-ko luzera izatera irits daitezke.
TAMAINA: arrak 29 cm-ko luzera izatera ailega daitezke eta emeak 60 cm-ko luzera izatera irits daitezke.
BIOLOGIA: bere ugaltze-garaia Floridan, martxoaren eta uztailearen artean gertatzen da eta bere banaketa-aldeko Iparraldean ekainaren eta uztailaren artean gertatu ohi da.
Emeek bere atzeko hankekin putzuak 12 cm-ko sakonera zulatzen dituzte, hemen hogei arrautza esferikoak jarri ohi dituzte, arrautzek 30 mm-ko diametroa dituzte. Emeek errunaldi batzuk lortzen dituzte eta inkubazioak 60-70 egunen artean irauten du.
ELIKADURA: bere elikadura haragijalea da batez ere. Ornogabeak jaten ditu (barraskiloak, intsektuak), baita narrastiak, arrainak, uretako hegazti txikiak, ere.



Noizbehinka uretako landare batzuk jaten ditu.
Dortoka zahartzen doan heinean bere baraila makurtzen da eta hau dela kausa bere elikadura bakarrik moluskuetan datzala pentsatzen da.
HABITATA: hondo hondartsuak eta lohitsuak daukaten ibaietako eta urmaeletako ur lasaietan eta sakonetan aurki daiteke. Batzuetan, ibaietako ur-goraldiak arrastatzen dituztenean, itsasoaren ondoan ager daitezke.
Okefenokee eta Everglades Aintziretan espezie oso arrunta da. Ia-ia egun osoa ematen du ibaiaren hondoan janez edo bere etsaiez ezkutatu.
Nahiz eta trionix arantzatsua ur azkarragoak nahiago izan, berarekin harmonian bizi da.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da, bere banaketa-aldeak Floridako Estatua, Alabama, Hego Carolina, eta Georgiako kostaldeko lautadak osatzen ditu.Espezie jatekoa da, herriko populazioek oso estimazio handia dute.

TRIONIX MUTIKA
(Trionix mutica)



EZAUGARRIAK: dortoka honen oskola leuna, tuberkulurik eta ezkrezentziarik gabekoa da. Berde kolore ilunekoa edo marroi-laranja da puntu oso ilunekin. Bere oskolaren ertza ere leuna da eta bere plastroiak jeneralki, zuri-kolorekoa, edo gris-kolore argikoa, kailuekin ditu.
Bere burua ez da hain handia. Aleen arabera, buruak berdexka edo marroi-kolore ilunekoa du, itzal-puntuez apainduta irregularki banaturik. Bere begitik lepoaren oinera arte lerro bat agertzen da. Bere begiak nahiko handiak dira. Bere izena bere sudurhodiaren itxuratik dator, lapranaren itxuraz amaitzen dena.
Bi subespezie deskribatu dira:
Trionix mutika arrunta (*Trionyx mutica mutica*): Dortokakumeen oskolaren kolorea puntu beltzak eta lerro txikiak ditu, gainera lerro fina (zuri-kolorekoa) oskolaren ertzetik zeharkatuz. Dena den, Kolorado Ibaian bizi diren ale batzuek, halako ezaugarririk ez dituztela ikusi da.
Golko-ko trionix mutika (*Trionys mutica calvata)*: Dortoka kumeek hondo argi baten gainean ozelo ilunak dituzte, eta sudurraren azpian ez daukate lerrorik, hankaren gainean orban ilunak dituzte eta begiaren azpitik lerro argi bat. Subespezie honek ibai handietako uraren bide geldoak nahiago du, trionix mutika arrunta, aitzitik, oso sakonak ez diren urmaeletan aurkitzen da.
TAMAINA: bere oskolak 35 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du.
BIOLOGIA: bere ugalketa udaberrian eta udan gertatzen da. Eztei-geldialdiak, apirilaren eta uztailaren artean gertatzen dira. Emeak, eguzkitan daudenean bere lepoekin zeharo luzaturik,





arrak emearengana hurbiltzen saiatu ohi da. Emeak ez badu nahi estalketa egiten, arra kosk egiten saiatuko da, baina aitzitik, emea, harbera bada eta onartzen badu, kopula ,ahalik eta azkarren, ur sakonetan gertatuko da.
Ernaldu izan ondoren, emeek egun-batean, bere arrautzak bazter hondartsuetan edo uhartetxoetan ezartzen dituzte. Eme bakoitzak denboraldiagatik hiru errunaldi lortzen ditu eta 33 arrautzara arte ezar ditzake, dena den batez bestekoak 22 arrautza izan ohi ditu. Arrautzak esferikoak dira, 23 mm-ko diametroa du arrautza bakoitzak eta bere oskolak bigunak eta zuriak dira.
Inkubazioak 65-77 egunen artean irauten ditu. Jaioberrien oskolak lerro beltz ugari apaintzeko ditu. Zazpi urte pasa eta gero heldutasun sexuala lortuko dute.



ELIKADURA: bere elikadura haragijale bakarra da. Arrainak, krustazeoak, narrastiak, intsektuak, barraskiloak eta bi kuskuko moluskuak jaten ditu. Bere harrapakinen zain, mugitu gabe, itxaroten da, gero harrapatzen ditu ez ezik, aktiboki bere atzetik doa ere.
HABITATA: hondo hondartsuetan bizi den uraren bideetan eta urmaeletan bizi da.
BANAKETA: Ipar Amerikako endemikoa da. Bere banaketa-aldeak AEBko erdigunea. Ipar Dakotatik eta Wisconsinetik Pensilvaniako Mendebaldera arte, Texas, Floridako Mendebaldea, Ohio, Mississippi, Missouri, Arkansas,eta Alabamako Ibaiak osatzen ditu.

GANGESKO TRIONIXA
(Aspideretes gangeticus)



EZAUGARRIAK: Gangesko trionixaren oskola biribildua edo obalatu samarra, berdexka kolorekoa da, itzal-marrazkiekin horiz inguraturik, indibiduo gazteengan batez ere, ezaugarria hau ikus daiteke.
Bere plastroiaren kolorea grisa edo zuri-beixa kolorekoa da, kailu luzeekin edukiz.
Bere burua lodia eta muturra motza da. Bere aurpegia berde-kolorekoa da, beltza-koloreko marra eta lerro ugari ditu. Bere begietako betzuloen artean garondora arte, erdipurdiko lerro ilun bat hedatzen da.
Bai arrek, bai emeek buztan motza dute, dena den arrek lodiagoa dute.
Indibiduo gazteenek helduek daukaten kolorea baino bizigoa da, bere oskolan luzeratuberkuluetako lerro asko dago.
TAMAINA: bere oskola 70 cm-ko luzera izatera irits daiteke.





BIOLOGIA: bere ugalketa eta eztei-garaia euritean gertatzen dira, oso sakonak ez diren uretan, eta urmaelen edo ibaietako hertzeen ondoan dauden uretan, gertatu ohi dira.
Errrunaldiak abuztuaren eta abenduaren artean gertatzen dira. Arrautzak esferikoak dira , 30mm-ko diametroa neurtzen dute eta bere oskolak gogorra dira. Inkubazioa nahiko luzea da, izan ere, 287 egun eklosionatzeko behar dute. Hau dela kausa, sarritan termitek hondatzen dituzte.
ELIKADURA: bere elikadura belarjalea da batez ere, dena den barraskiloak, arrainak eta narrastiak ere jaten ditu, batzuetan uretako hegazti txikiak, ubarroiak bezala, harrapatzen ditu.
HABITATA: ur gezetako dortoka hau ur arreak eta hondo hondartsuak edo lohitsuak duten ibai sakonetan bizi da. Baina lurrean ere ager daiteke: hondar-bankuaren, edo lur-ezpondaren gainean, uraren ondoan badaude batez ere.



BANAKETA: bere banaketa-aldeak Indiako Iparraldea osatzen du, hantxe Ganges, Indus Ibaietan eta bere ibaiadarretan dago. Pakistanen eta Bangladeshen ere aurki daiteke. Espezie honekin kontu handia maneiatzeko eduki behar dute, izan ere, oso aldakorra da eta sarritan kosk egiten du, bere harrapakinari heltzen dion bezain laster ez du askatzen.
Espezie honekin izugarrizko harrapaketa ilegala dago: bai bere kontsumorako baita olio-lozioetarako lortzeko ere.
Arestian CITES-ak babesten du eta bere lehenengo gehigarrian sartuta dago, hortxe dauden espezieen harrapaketa zeharo debekatuta dago.
Gangeseko Ibaiaren alde handitariko bat Dortoken Santutegia aldarrikatua izan da eta herriko autoritateek babesten dute.

LEITHEKO DORTOKA
(Aspideretes leithii)



EZAUGARRIAK: uretako dortoka honen oskola obalatua edo biribildua da, aleen arabera, berde-koloretakoa, 4-6 ozelora bitarteko hori-koloretakoa apaindurik dago eta marrazki zentrokideak ditu .Bere oskolaren aurreko bazterrean garatxo asko daude.
Bere plastroiaren kolorea beixa da eta bost kailu luzeak ditu. Bere burezurra txikia da eta sudurrak hodiaren itxura du eta motza, fina eta gris edo marroi-kolorekoa da.
Aitzitik, dortoka-kumeen aurpegiaren kolorea berdea da, bere begietatik leporaino lerro beltzak doaz. Adinaren poderioz, lerro hauek pixkanaka-pixkanaka lausotzen doaz.



TAMAINA: bere oskola 50 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: espezie hau ez da bezain aldakorra Gangeseko trionixa bezala, eta inoiz ez da berotzen eguzkitan termoerregulatzeko.
Bere errunaldia otsailaren eta ekainaren artean gertatzen da. Emeek arrautzak ezartzeko lurrean putzuak zulatzen dituzte, hauek esferikoak dira eta bere tamainak 31mm-ko diametroa du.
ELIKADURA: bere dieta haragijalea da batez ere. Arrainak, moluskuak, eta krustazeoak jaten ditu. Aitzitik, konpainia-animaliatzat edo animalia sakratuak bezala hiriburuetan edo erreserbetan, gatibualdian, dauden dortokek hibiscus-en lore-ak eta beste uretako landare jaten dituzte.
HABITATA: hondo sakona duten ibaietan bizi da.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak bakarrik India osatzen du. Hantxe, Madhya Pradesten, Palthatin, Andhra Pradesten, Karmatakan, Maharashtran, Orissan eta Tamil Nadun aurki daiteke.

TRIONIX BELTZA
(Aspideretes nigricans)





EZAUGARRIAK: trionix beltzaren oskola biribildua ilunkolorekoa, ia-ia beltza, dena den, ale batzuek tonu berdexka iluna, orban beltz batzuekin dituzte. Bere oskolaren ertzetik tuberkulu lodi-saila zeharkatuz (lepoaren azpitik).
Bere plastroiaren kolorea grisa da, puntu beltzez apaindurik eta dauzkan kailuak ondo nabarmena daude. Bere burua lodia da eta bere sudurra luzea, hobiaren itxuraz eta berde-kolore ilunekoa da, baita bere gorputzadarrak ere.
TAMAINA: bere oskola 80 cm-ko luzera izatera irits daiteke eta 49 kiloko pisua izatera ailega daiteke.
BIOLOGIA: espezie misteriotsu honen ugalketa euritean, otsailaren eta martxoaren artean, gertatzen da.
Ernaldurik izan ondoren, Emeak iluntzean uretatik ateratzen dira, eta bere arrautzak jartzeko, lurrean putzu bat zulatzen dute. Hiru ordu ematen dituzte zulatzeko, handik aurrera 10 arrautzatik 38 arrautzara bitartean ezartzen dituzte. Haiek esferikoak dira eta 35 mm-ko diametroa neurtzen dute.
Inkubazioak 96 eta 104 egunen artean irauten du. Jaiotzean dortoka-kumeeek 48 mm-ko luzera neurtzen dute, eta 18 gramoko pisua dauzkate.
ELIKADURA: bere elikadura orojalea da. Arrainak, krustazeoak, edo fruituak jan ohi ditu.
HABITATA: gatibualdian bakarrik aurkitzen da leku batean: Nasirabadeko San Byazid-Bastami Lakuan (Bangladesh).
BANAKETA: nasirabadeko San Byazid-Bastamiko artifizial aintziran dago (Bangladesh). Aintzira hau tenplu islamiko batean sartuta dago. Anderson Naturalistak, 1875. urtean lehengo aldiz, bere populazio gautiboa deskribatu zuen, populazio honek 284 ale osatu ditu (tamaina guztiez).
Bere jatorri naturala ezezaguna da.
Hau dela kausa, espezie hau babestua dago eta halaber, CITES-en Lehengo gehigarrian sartuta.

TRIONIX INDIARRA
(Chitra indica)





EZAUGARRIAK: ur gezetako dortokaren espezie hau oso handia da, izan ere, 115 cm-ko luzera izatera irits daiteke eta 120 kiloko pisua.
Nahiz eta tamaina handia eduki, bere burezurra oso txikia da, bere lepoaren oina zabala denez, animalia honen aldealdeak aspektu triangeluarra du. Bere oskolaren kolorea berdea edo grisaxka da, aleen arabera, hori-koloretako markak irregularren itxuraz apaindurik.
Bere plastroiaren kolorea zurixka da eta lau edo batzuetan bost kailu begi-bistakoak ditu.
Burezurraren aurrean begiak (oso higiturik) daude, bere sudurra txikia da eta bere sudur-hodiak txikiak dira oso.
Aurpegia, lepoa eta gorputzadarrak oliba grisaxka-kolorekoak dira. Bere aurreko hankak sendoak eta palmaturik dira oso.
TAMAINA: bere oskola 115 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: espezie honek larruan zehar arnasa hartzen du. Honi ezker, ur azpian arnasa hartzera igo gabe ordu batzuk egon daiteke.
Autore batzuek esaten dute animalia honek umore txarra duela eta haginkada larriak sortzeko gai dela.
Bere ugalketa Udan gertatzen da. Emeek ernalduak izan ondoren, abuztuaren erdialdetik Iraila arte bere errunaldiak ezartzen dituzte. bere habiek botilaren itxura dute eta tontor hondartsuen gainean daude.
110 cm-ko luzera duen edozein emek 100 arrautza esferikora ezar ditzake. Arrautza bakoitzak 28 mm-ko diametroa izango du.
Inkubazioak 40-70 egunen artean irauten ditu. Eme batzuek urtero errunaldi batzuk lortzen dituzte.
Jaiotzan kumeek 10 gramoko pisua dute eta oliba-kolorekoak dira.
ELIKADURA: bere elikadura haragijalea da batez ere. Arrainak, krustazeoak, moluskuak, eta batzuetan uretako landare batzuk jaten ditu.
HABITATA: hareazko hondoak dauzkaten ibai emaritsuetan bizi dira.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak India osoa, Pakistan, Nepal, Bangladesh eta Birmania osatzen ditu. Baita Thailandiako ekialdean eta Malaysiako iparraldian ere.

SWINHOEKO TRIONIXA
(Rafetus swinhoei)





EZAUGARRIAK: Swinhoeko trionixaren oskolaren kolorea berdea eta luzea da, horia-koloreko puntu ugariekin, zeinek, batzuetan puntuen lerroa, argalak eta erregularrak osa baititzakete.
Bere plastroiaren kolorea grisaxka da, eta bi kailu aurkezten ditu. Bere burezurrak erdipurdiko tamaina du eta bere sudur motzak hodiaren itxura du.
Aurpegia, lepoa eta gorputzadarrak berde edo beltzexka-kolore ilunekoak dira,eta atzeko aldean hori-koloretakoak dira.
Bere lepoan eta aurpegian horia-koloreko tanto ugari sakabanaturik ditu.
Espezie hau eta Txina-ko trionixarekin (*Pelodiscus sinensis)* nahasia izan da. Dortoka honek, 1998-an espeziaren maila lortu zuen.
TAMAINA: bere oskola 50 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
BIOLOGIA: ur gezetako dortoka urtarra honi buruz ez da ezer ikasi edo argitaratu.
ELIKADURA: gauez harrapatzen dituen krustazeoak arrainak eta moluskuak jaten ditu.
HABITATA: ur-laster lasaiak diren ibaietan, ubideetan, aintziretan eta erreketan bizi da.
BANAKETA: bere banaketa-aldea gaizki ezaguna da. Badaki Txinan (Shandahi Ibaiaren errekastoan, eta Tai-Hu Lakuan) bizi dela. Autore batzuek Txinako Hego-aldean eta Vietnamen dagoela esaten dute.

MALAYSIAKO TRIONIXA
(Dogania subplana)





EZAUGARRIAK: Malaysiako trionixaren oskolaren kolorea oliba edo marroi-iluna da. Obala, orban lodien bi edo hiru pare beltzak eta biribilduak apaindurik. Bere oskolaren erdialdetik beltz-koloreko marra bat zeharkatuz.
Bere plastroiaren aurreko aldean oso luzea da eta atzeko aldean ez dago plastoirik. Bere kolorea zuria da, baita bere gorputzaren beheko aldearen larrua, ere, goiko aldearen kolorea marroia edo berdexka da, horia eta beltza-koloreko puntu batzuk sakabanaturik ditu.
TAMAINA: bere oskola 35 cm-ko luzera izatera ailega daiteke.
HABITATA: ur laster azkarretan eta mendiko-uharretan bizi da. Autore batzuek pentsatzen dute hau guztia bere tamaina txikia izateagatik, gertatzen dela. Izan ere, tamaina handia duten dortokek, ibai handiak eta ur korronte geldoak aukeratzen dituzte.
ELIKADURA: bere dieta haragijalea da batez ere. Arrainak, krustazeoak, moluskuak, eta batzuetan uretako landare batzuk jaten ditu.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak Asiako Hego-ekialdeko zati handi bat, Thailandia, Malaysia, Borneo, Java, Hego Birmania, eta Birmania osatzen ditu.

TRIONIX PIKORTSUA
(Palea steindachneri)





EZAUGARRIAK: Trionix pikortsuaren oskolaren kolorea marroia-berdexka da, pikor txiki askorekin. Obala eta zapaldua da. Dortoka-kumeen oskolak luzera-lerroak dituzte, lerro hauek denboraren poderioz lausotzen hasi dira.
Bere plastoiaren kolorea zurixka edo grisaxka da, lau kailu ditu.
Bere buruak erdipurdiko tamaina du, baita sudurra eta bere lepo luzea edo marroi berdexka-koloretakoa ere. Buruko alboetan bi lerro beltzak eta ezpain-ertzean oso ondo ikusten den hori-koloreko puntu bat du.
Bere lepoaren oinan tuberkulu lodiak ditu.
TAMAINA: bere oskola 43 cm-ko luzera izatera ailega daiteke.
BIOLOGIA: espezie urtarra da, eta oso gutxitan lurrean aurki daiteke.
Bere ugalketa uztailaren eta abuztuaren artean gertatzen da. Emeek 3 arrautzatik 28 arrautzara bitartean ezartzen dituzte. Arrautzak esferikoak dira eta 2,2 mm-ko diametroa neurtzen dute, gainera arrautza-oskola oso fina da.
ELIKADURA: bere elikadura orojalea da batez ere. Arrainak, intsektuak, eta krustazeoak jaten ditu, baita uretako landare batzuk ere.
HABITATA: ur-landaredi ugari dagoen ibaietan eta urmaeletan bizi da.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak Kwangtungeko eta Kwangasiko Txinako Probintziak, Hainan Uharteko Hegoaldean, eta Vietnam osatzen ditu. 1500 metroko altitudera arte aurki daiteke.
Mauricio eta Kauai Uharteetan, eta Hawaiko Oahu Uharteetan ere artifizialki sartu egin dituzte.

TRIONIX ERRALDOIA
(Pelochelys bibroni)



EZAUGARRIAK: Trionix erraldoiaren oskola oso leuna eta biribildua da, berde-kolore ilunekoa edo marroia du, orno-alde banatan itzal-puntuez apaindurik eta puntu beltz txikiez bazterreko lerro bat dago.
Indibiduo gazteenen oskolan orno-karena mehe bat eta denboraren poderioz desagertzen diren tuberkulu txiki asko daude.
Bere plastroiaren kolorea beixa da eta bost kailu oso luzeak ditu. Bere burua zapaldua, eta luzanga da, bere mutur biribildua berde kolorekoa, iluna-koloretako puntuekin. Eztarrian tuberkulu asko aurkezten ditu.
Beti emeak arrak baino handiagoak dira.
TAMAINA: trionikidoen familiako dortokarik handiena da. 130 zentimetroko luzera izatera irits daiteke eta 200 kiloko pisua izan dezake.
BIOLOGIA: dortoka honen izaera ez da aldakorra, baina bere tamaina oso handia denez arriskugarria izan daiteke , gogorki defentsa egiten du eta. Emeek, harean zulatzen dituzten putzuetan 25 arrautzatik 27 arrautzara bitartean ezartzen dituzte. Hauek esferikoak dira eta 35 mm-ko diametroa neurtzen dute. Eme bakoitzak urtero, errunaldi batzuk lotzen ditu.
Malaysian, Pakistanen, Papua-Guinea Berria eta Indian, herriko populazioek trionix erraldoia jaten dute. Bere oskolaren hezurrekin maskarak turistentzat egiten eta saltzen dituzte.
UICN-k orain dela urte batzuk espezie hau babesteko egitasmoari hasiera eman dio.
ELIKADURA: bere elikadura haragijalea da. Arrainak, moluskuak, krustazeoak eta gutxitan uretako landareak jaten ditu.
HABITATA: ur-laster lasaiagoak dauden ibaietan eta estuarioetan bizi da. Batzuetan itsasoan aurki daiteke.
BANAKETA: bere banaketa-aldea oso handia da: India, Txina-ko Hegoaldea (Kwamgtung, Canton, Foochow eta Hainan Irla), Vietnam, Laos, Kambodia, Thailandia, Birmania, Sumatra, Java, Ginea Berria (Iran Jaya eta Papuasia), eta Indonesia eta Filipinak Uhartea batzuk (Luzon Uhartea).



EUFRATES-KO DORTOKA
(Rafetus euphracticus)



EZAUGARRIAK: Eufratesko dortokaren oskolak biguna eta biribila du, batzuetan luzanga zamarra da. Goiko aldean gris-marroi koloretakoa, eta beheko aldean edo plastroian, biguna eta beixa kolorekoa da , hemen bi kailu ditu. Halaber, bere oskolaren aurreko ertzean -lepoaren azpitik- tuberkulu lodiak ikus daitezke.
Bere buruak erdipurdiko tamaina du, eta sudur motza batean - hodiaren itxuraz- amaitzen da. Nahiz burua, nahiz lepoa eta gorputzadarrak berdexkak dira, baina lepoaren azpiko aldean zurixka edo ia-ia beixa da
TAMAINA: bere oskola 50 cm-ko tamaina izatera ailega daiteke.
ELIKADURA: dortoka haragijalea da, intsektuen larbak, moluskuak, krustazeoak, narrastiak eta arrainak jaten ditu.
HABITATA: hondo haretsuak edo lohitsuak dituzten ibaien xirripetan bizi ohi da. Sarritan, ur-azalean -eguzkitan berotuz- ikus daiteke.
BANAKETA: bere banaketa-aldea oso murriztuta dago. Mesopotamian, Tigris eta Eufrates Ibaietan eta bere ibaiadarretan bakarrik bizi da. Baita, Turkiako hegoaldean, Iraken, Sirianen, eta Iranen, ere. Autore batzuek, Israelengo Iparrekialdean aipatu ohi dute.



TXINAKO TRIONIXA
(Pelodiscus sinensis)



EZAUGARRIAK: Txinako trionixaren sorbalda eta bular-oskola korneo-plakarik gabe daude eta larru sendoez estalirik dago. Bere muturra luzatu egin da eta tronparen itxura hartzen du, bere puntan sudur-hodiak daude.
Gorputzadarrak lauketa samarrak dira, eskuak eta oinak palmatuak dira eta bakarrik hiru atzamar,azazkalez hornituriik, dituzte.
Bere sorbaldaren goiko aldean tuberkulu txikiak, luzera-ilarak jarrita, ditu. bere kolorea berde-iluna da, beltza-koloreko orban txiki batzuekin.
Bular-oskolaren kolorea horixka da, oso murriztua dago eta haren gainean iluna-koloreko orban handiak nabarmentzen dira.
TAMAINA: bere oskola 25 cm-ko luzera izatera irits daiteke, baina ezohikoki, 35 cm-ko luzera izatera ailega daitezke.
BIOLOGIA: espezie hau, bakarrik urtarra da, igeri egiten duenean oso trebea dena.
Dortoka helduak oso lurraldekoiak dira eta udaberrian ugaltzen dira. Emeek bizi diren lekuetan putzuak zulatzen dituzte bere arrautzak ezartzeko. bere arrautzak eklosionatu aurretik, inkubazioa behar dute eta ekintza honek 60 edo 92 egunen artean irauten ditu.
ELIKADURA: gauez ehiza egiten duenean, urmaeletako hondoan dauden arrainak, krustazeoak eta moluskuak harrapatzen eta gero jan ohi ditu.
HABITATA: ur-laster lasaiak diren ibaietan, aintziretan, ubideetan eta erreketan bizi da.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak, Txina-ko Hego-ekialdea eta erdialdea, Vietnam Hainan eta Taiwan Irlak, osatzen ditu.
Espezie hau Hawai, Bonin, Timor Uharteetan eta Japonian sarturik izan da.



ZAMBEZEKO TRIONIXA
(Cycloderma frenatum)



EZAUGARRIAK: Zambeziko trionixaren oskola obalatua eta zeharo leuna da, bere kolorea berde-ilunekoa edo marroi-berdeska da.
Bere plastroiaren kolorea beixa edo errosazeoa da, eta zazpi kailu ditu. Bere burezurra sudurretik (luzea eta hodiaren itxuraz) luzatzen da.
Bere aurpegiaren kolorea grisa edo berdexka da, eta sudurretik lepoara arte bost lerro beltzak doaz.
Dortokakumeen oskolaren kolorea berde uniformea edo grisaxka da eta bere ertzetik marra zuri bat dago.
TAMAINA: bere oskola 56 cm-ko luzera izatera ailega daiteke.
BIOLOGIA: ur gezetako dortoka honek euritea pasatu ondoren bere arrautzak ezartzen ditu. Eme bakoitzak putzu bat zulatzen du eta 15 arrautzatik 22 arrautzara bitartean ezartzen ditu. Arrautzak esferikoak dira eta 31 mm-ko diametroa dute.
Jaioberriek kolore deigarriak eta distiratzuak aurkezten dituzte.
Zambeziko trionixa espezie lotsatia da, eta edozein arrisku nabaritzen duenean bere oskolaren barrurantz sartzen da. Ia-la bere bizitza osoa, bizi den ibaietako eta aintzirako hondo lohisuetan pasatzen du.
ELIKADURA: bere elikadura haragijalea da. Arrainak, uretako barraskiloak, bi kuskuko moluskuak, eta narrastiak jaten ditu.
Sarritan, Malawi Aintziran ertz hondartsuetan, bi kuskuko moluskuen bila bere hankekin zulatuz ikusten dira.
HABITATA: ibaietako ur geldoetan eta hondo lohitsuak dituzten aintziretan bizi da.
BANAKETA: Afrikako endemikoa da, bere banaketa-aldeak Zimbaweko Hego-aldea, Tanzaniako Ekialdea, eta Zambia, osatzen ditu.



INDIAKO TRIONIXA
(Lissemys punctata)



EZAUGARRIAK: espezie honen oskolaren kolorea berdea edo marroi-iluna da, hori-kolorekoa puntu txikiekin sakabanaturik. Bere plastroiaren kolorea beixa da eta helduen oskolek zazpi kailu dituzte.
Bere burezurra txikia da eta sudurrak hodiaren itxura du. Bere aurpegiaren kolorea berdea edo marroia da eta hori-koloreko lerro lodiak ditu.
Bi subespezie deskribatu dira:
Indiako Hegoaldeko trionixa (*Lissemys punctata punctata*). Bere oskolaren kolorea gris-berdexka du, iluna-koloreko tanta ugariz sakabanaturik. Bere oskolaren inguruan ere ertz argi bat aurkezten du.
Indiako Iparraldeko trionixa (*Lissemys punctata andersoni*): Bere aurpegia horia-koloreko orbanez apaindurik ditu eta orban hauek beltz-kolorekoa inguraturik daude.



TAMAINA: bere oskola 20 cm-tik 37 cm-ra bitartean irits daiteke eta zazpi kiloko pisura irits daiteke.
BIOLOGIA: bere araldi-garaia Apirilean gertatzen da. Arrak emearen azpitik igeri egiten du, eta bere buruarekin emearen oskola laztantzen du. Emea estalketa egiteko prest dagoenean, bere burua arraren buruarekin topo egiten du eta uretako hondorantz kopulatzeko joaten dira.
Errunaldiak urte osoan zehar gertatzen dira.
Errunaldi banatan, emeak lurrean zulaturik dagoen putzu batean hamar arrautza esferikoak ezartzen ditu, arrautza bakoitzak 43 mm-ko diametroa du.
Inkubazioa nahiko luzea da, eta 9-12 hilabeteen artean irauten ditu. Arrautzak maiatzaren eta uztailaren artean eklosionatzen dira.
ELIKADURA: bere elikadura orojalea da. Arrainak, krustazeoak, barraskiloak eta narrastiak, jaten ditu, baita batzuetan uretako landareak ere. Dena den Indiako Iparraldean espezie hau belarjalea dela ikusita dago, neguko lozorrotik esnatzen den bezain laster, batez ere.
HABITATA: ur-laster lasaiak diren ibaietan, ur geldituetan eta indiatar ureztaketaren istiletan bizi da, leku hauen hondoak lohitsuak edo hondartsuak direnez dortoka hau ezkutatzen da. Sarritan eguzkitan, mendixka hondartsuetan ikus daiteke.
BANAKETA: bere banaketa-aldeak ia-ia India osoa, Pakistan, Nepal, Birmania, Sri Lanka, eta Bangladesh osatzen ditu, Baita Andaman Uhartean ere , hementxe gizakiek sartu dute.

AUBRYREN TRIONIXA
(Cycloderma aubryi)



EZAUGARRIAK: aubryren trionixaren oskola leuna eta marroi-kolorea da, orno-lerro oso ilun-kolorekoarekin apaindurik dago.
Bere plastroia horixka da, beltza-koloreko orban ugari eta zazpi kailu ditu.
Bere burezurra zapaldua eta sudur luze batean amaitzen da. Bere aurpegiaren kolorea gorrixka da eta marroi-koloreko bost luzera-lerroekin ditu.
Bere kokotsa eta eztarria horixkak dira eta iluna-koloreko orban ugari ditu.



TAMAINA: bere oskola 55 cm-ko luzera izatera irits daiteke.
HABITATA: ohian euritsuetan dauden uretako inguruneetan (ibaiak eta urmaelak) bizi da.
BANAKETA: Afrikako endemikoa da, bere banaketa-aldea oso murriztua da eta Erdialdeko Afrika (Gabon, Zaire eta Kongo) osatzen du.

DORTOKA KAIMANA
(Macrochelys temminckii)



EZAUGARRIAK: dortoka kaimanaren kolorea marroia edo grisa da, baraila sendoa eta lepo oso luzea ditu, hain luzea izan daiteke ezen oskolaren tamaina berdina eduki ahal baitu. bere lau gorputz-adarren atzamarrak atzapar sendoetan eta zorrotzetan bukatzen dira.
Bi urterekin bakarrik, 20 cm neurtzen du eta gogorki kosk egiteko gai da.
TAMAINA: dortoka kaimana, Munduko ur gezetako kelonio rik handiena da, 100 kiloko pisua gainditzeko gai da, dena den gaurko 70-80 kiloko pisua izatera ailega daitezke. Bere oskolaren neurria 66 cm-tik 75 cm-ra bitartean dabil.
1948. urtean, Kansasko Iparramerikar Estatutik Neosho Ibaian harrapatu zuten aleak 227 kiloko pisua zuen. Gaur egun, Chikagoko Brookfied Zoologikoan, ezagutzen den dortoka kaimana handiena, dago.



BIOLOGIA: dortoka bakarti hau AEBko Hego-ekialdeko eskualdeko aintzira handietako, ubideetako eta ibaietako hondo lohitsuetan bizi da. (Georgiatik Hegoaldera, Floridatik Iparraldera, Texasetik Ekialdera, Mississippiko haranean, Kansasen, Iowan, eta Illinoisen).
Jeneralki, bere bizitzaren zati handi bat erdi-lurperatua ibaietako hondo sakonetan, biktimen zain, denbora ematen du. Tranpa bitxi baten bidez bere biktimak harrapatzen ditu. Espezie honek bere mihiaren bizkarraldean apendize mugikor bat, bitan adarkaturik eta luzea du. Apendize honek tonu arrosa du eta arrainak harrapatzeko karnata balio du. Horrela, dortoka hondoan, ahoarekin zeharo irekia dagoen bitartean, apendize hau (Zizare bat ematen duena) astintzen du. Arraina gezurrezko zizarearen bila joaten den ahala, dortokak irentsi ohi du, edo handia bada, bere barailekin harrapatzen du. Gauez ere eraginkorra dago eta ibaitik harrapakinen bila doa. Egunez atseden hartu eta ehiza egin ohi du batera, metodo gatzdun honekin. Jeneralki ahoa irekita mantenduz 15 minututik 20 minutura bitartean dago, gero ur azalera arnasa hartzera joaten da eta gero berriro ibaiko hondora arrain egiten jarraitzera joan ohi da.
Dortoka kaimanak lurrean denbora gutxi ematen du. Estalketa ere ur azpian egiten du.
11-13 urteren artean daukatenean heldutasun sexuala lortzen dute eta arrak emeak baino handiagoak direnean ere.Estalketak otsailetik apirilera arte gertatzen dira, normalean 5-25 minuturen artean irauten dute.
Gero emeek ertzearen ondoan putzu bat zulatzen dute, eta han-txe 10 arrautzatik 50 arrautzara bitartean ezartzen dituzte. Arrautza esferikoak dira eta 80-150 egunen bit artean eklosionatzen dira. Irailean dortokakumeak jaiotzen dira eta 4,5 cm inguru neurtzen dute.
Nahiz eta babestua eta CITES-eko Bigarren Gehigarrienean egon, bere haragiarekin dortoka-zopa egiteko harrapatzen dute.
Dortoka kaimanaren antzekoa baina txikiagoa dortoka aligatorea (*Chelydra serpentina*) da, izan ere 45 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du eta 15 kiloko pisua.
Gizakiok, legalki, espezie hau jan dezakegu, Luisianako Ipar Amerikako Estatuan batez ere, baina bere haragia ez da bezain preziaturik dortoka aligatorearena bezala *(Chelidra serpentina)*. Momentuz bere populazioak ugariak dira.



ELIKADURA: dortoka haragijalea oso jatuna da, arrainak, narrastiak, sugeak, barraskiloak, karramarroak, zizareak eta jaten ditu. Baita ur azalaren ondoan harrapatzen dituen hegaztiak ere.
HEDAPENA: gizakiok, legalki, espezie hau jan dezakegu, Luisianako Ipar Amerikako Estatuan batez ere, baina bere haragia ez da bezain preziaturik dortoka aligatorearena bezala *(Chelidra serpentina)*. Momentuz bere populazioak ugariak dira.

DORTOKA ALIGATOREA
(Chelydra serpentina)







EZAUGARRIAK: dortoka aligatorea, *"dortoka jatuna"* ere izendatua, Amerikako kelonio sendo bat da, bere kolorea nabaria, oliba eta beltzaxka da.
Bere sorbalda nahiko konbexua da, hiru edo lau protuberantzia-saila apaindurik.
Bere hanken ezaugarria sendotasuna da, eta oinek igeri-mintzak oso garatuak dituzte. Oskolak ez dituen babesten beste gorputzako atalak, larru garatxoez eta garatzez estalita daude, baita tanta txikiez eta ezkata handiez sakabanaturik ere.
Lau subespezie deskribatu dira: Dortoka aligatore arrunta, Hego Amerikako dortoka aligatorea, Floridako dortoka aligatorea, Ertamerikako dortoka aligatorea.
Dortoka aligatore arrunta *(Chelidra serpentina serpentina*): bere banaketa-aldea Eskozia Berritik Texas-era arte aurki daiteke.
Hego Amerikako dortoka aligatorea *(Chelidra serpentina acutirostris): Hondu*rasen, Kolonbian eta Ekuadorren bizi da.
Floridako dortoka aligatorea *(Chelidra serpentina osceola):* bakarrik Floridako penintsulan bizi da. Subespezie hau ez da besteak bezala, izan ere lepoaren inguruan eskrezentzi asko aurkezten ditu, haien eginkizunak ezezagunak dira.
Erdialdeko Amerikako aligatorea *(Chelidra serpentina rossignonii):* bere banaketa-aldea Amerikako Kostalde atlantikoan, Mexikotik eta Yukatango Hegoaldean, Belizeko Mendebaldean, Guatemalan eta Hondurasen banaturik dago.
TAMAINA: 70 cm-ko luzera izatera eta 50 kiloko pisua izatera ailega daiteke.



BIOLOGIA: naturan, oso zaila da espezie hau ikustea, izan ere egunez ezer egin gabe eta lohian erdi lurperatua aurkitzen da, aitzitik, gauez bere jarduera berreskuratzen du. Dortoka hau, uretik urrunduz, elikaduraren edo errunaldirako leku aproposaren bila, lehorrera joan ohi da. Bere izaera haserrekorra eta borrokalaria da, instintiboki bere ondoan dagoen gauza guztiak kosk egiten ditu, bere harrapakinengan hortzak sartu ondoren, gogorki heldu ohi ditu.



Lehorrean azkarki ibiltzeko gai da eta erraz igeri egiten du. Harrapakin baten atzetik ibiltzen denean, erraztasun hori ikus daiteke, batez ere.
Dortoka aligatorearen estalketa, udaberrian gertatzen da (maiatza eta abuztuaren artean). Emeak 20 arrautzatik 30 arrautzara bitartean ezartzen ditu (Kasu bitxietan 50 arrautza ezar ditzake). Arrautzak zuriak eta esferikoak dira. Errunaldirako, emeak putzu bat (20 cm-ko sakonera), batzuetan ertzetik urrunduz, zulatzen du eta landare-detrituz estaltzen du. Errunaldiak 50 egun irauten du. Klima-baldintzak onak ez direnean eta udazkena baino lehen eklosioa ezin da sortzen, enbrioien garapena mozten da eta hurrengo udaberrian jaiotasuna sortuko da. Arrautza-oskola apurtu bezain laster jaioberriak uretara joaten dira. Jaioberriek 31 cm inguru neurtzen dute, bere kolorea grisa da eta aurpegia luzea da oso.



Espezie hau beti mehatxua izan da bere habitataren hondamenagatik eta kontsumorako harrapaketagatik, dena den, ez dirudi egoera kezkagarria dela eta bere populazioa gutxitzen doazela.
ELIKADURA: arrainak, narrastiak, sugeak, eta beste uretako ornodun jan ohi ditu, batzuetan ahateei eta antzarei erasotzen die. Helduak ziren harrapatutako aleek ez dute nahi emandako janaririk, baina ordea, indibiduo gazteenak, nahiz eta gatibualdian egon, pixkanaka-pixkanaka emandako janaria jateko ohitura hartzen dute.
HABITATA: urmaeletako eta ibaietako ur sakonetan bizi da, baita leku zingiratsuetan ere, nahiz eta batzuetan muturraren punta uretik atera, eta korrontearen bidez eramaten uzten du. Gizonak joaten diren lekuetan, edozein zarata entzutean ihesari ematen zaio, aitzitik, Hegoaldeko eskualdeetako ur bakartietan bizi diren dortokak ez dira hain beldurtiak.



BANAKETA: bere banaketa aldeak Ipar Amerika osoa, Atlantiko Eskualdeetatik Montañas Rocosasera arte, Kanadako Hegoaldeko lekuetatik Mexikoko Golkora arte, eta Erdialdeko Amerikako, parte handi bat, Costa Ricara arte, osatzen ditu.

MUSIKAUZO

MAIATZA-EKAINA
MAYO-JUNIO
2024

MUSIKA EMANALDIAK BILBOKO AUZOETAN

ACTUACIONES MUSICALES EN LOS BARRIOS DE BILBAO

BIZKAIA BIG BAND, AMANN & THE WAYWARD SONS, ARNAU & THE HONKYTONK LOSERS, ASIER TALANDA, BASTE & NASTE, BENETAN BE, BILONGO LT, COLAJETS, EIDABE, ERRAIAK, G. G. PROJECT, IBAI GARCÍA BLUES PROJECT, IN BI GU, JOSHUA EDELMAN & XABI ARAKAMA, LA BASU, LA CARROCERÍA, LORELEI GREEN, M&A SWING MACHINE, MALÚ GARAY, ÓSCAR JAREÑO, PANPOTX, PEDRO MAKAY, RUMBO PARAÍSO, THE BINILO´S, THE HALLFNELSON, THE ONE, TRIPLE ZERO BAND, VITTERSWEET, **BEHOTSIK ORKESTRA**

kulturabarrutik.eus

KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE

KULTURA BARRUTIK

B Bilbao